


LATXAGA

EUSKALERRIKO SINODUA

DIPUTACION DE GUIPUZCOA



BIBLIOTECA

PAX Argitalpenak

JAUNAREN DEIA

ITZAURREA

Gaia berexi berexia daukagu. Gai ortaz ez da ezertxore idatzL ÌNunaiko Elizarentzat garrantzi aundia daukala garbi dogo.

Elizaren aldetik, gaurko giroari, nolabait erantzuna emateko, Sinodua bidè egokia dugu. Euskalerriko kristau etorkizunari begiratuaz, berriz, Sinodua bearrezko ganza deritzait. Baina Eliza, alderdi ontatik, gare artean, eztulka lo daukagu.

Lari au egitera, bi asmo nagusiak bultzatzen naute. Bate-tik, Elizaren etorkizuna, bear bezala antolatze arren età bestetik Euskalerrian sinismena nundik nora dijoan jakiteko biderik egokiena bezala, agertzen zaigulako.ÌEliza, nun dagon jakiteak età nora dijoan galdetzea ez da txarkeria.

Gainera, gaurko egunean, Elizak garaiko ta lekuko oztopoak arkitzen ditu. Erantzun jatorrak aurreratzea, mesederik aundiena dugu. Nere aldetik ikusitako buruaus-teak asko dira età aipatuko ditut; besteak, batez ere irakur-leak, lerroa luza beza. Aipatutako gaiekin beste berri asko astintzen dira. Ba dakit oso ondo, Sinodua ez dola gizon baten lana, Elizarena baizik, baina norbaitek zirikatu bearko ditu bazterrak.

Elizbarrutiko Sinodua bearrezkoa dala ikusten dugula, heste gaia datorkigu burura: "Noizko Euskalerrri osoko Sinodua?". Alderdi ontatik ere ba dugu zer esan bearra. Ematen zaigun aukera ezin dugu galdu. Sinismena sartu ezkerotik, Euskalerrriko Sinodorik ez dugu izan. Orrefc ere zerbait esan nai du.

Euskaldunak gauza batzuetan ain aulak ibilli gerala, ona da jakitea. Sortaldeko Elizetan, Sinoduak, Elizaren kurpillak bezala erabilli dituzte.

Nere biotz barrenean, gogò bizi bat daramat: Euskalerrriari, Sinoduari buruz, liburu bat eskeintzea.

Bi galdera nagusiei, nere erantzun osoa eman nai nizkieke: Nolakoa dan Elizbarrutiko jokabide nagusia bat, età bestea, Euskalerrrian nolako erantzun bizigarriak erabilli bearke genituzkean.

Sinodua aipatzen dugula, nai ta naiez, Euskalerrri età Elizaren giroa ikuitu bearke genituzke.

Gaia, guztiz zailla aukeratu dugu, baita berri berria. Noizbait età nolabait aipatu ta aizatu bearra.

Nola idatzi? Erriak ulertzen duen euskaraz: alkarrizketan, erriko apaiz batek egiten duen bezala. Asmo garbiak agertuko ditugu, baita iritzi soillak. Itz errexak billatzen saiatuko gera, baita argitasuna.

Mesede bat egiteko asmoakin ari gera lanean. Goibelak astintzen ditugula, Eliza età Euskalerrria aterako dira garaille.

New York irian daude idaiziak Ierro auk.

1. Sinoduaren zerikusia

Atal ontan, Elizaren jokabide nagusien aldetik, Sinoduaren onarriak ikusi nai ditugu.

Lendabizi, irakaskintzaren aldetik argia artu bearra dugu. Sinoduari buruz zer dion Elizak jakitea ondo etorriko zaigu.

Gero, teiogiaren aldetik ditugun onarriak aztertu nai genituzke.

Azkenean, eizartzantzaren aldetik, Sinoduaren izaera ta bearraren garrantzia jakin nai genituzke.

Elizaren gaurko irakaskintza

Azkeneko urte aueko idazki nagusietan Elizak aipatzen ditu Sinoduak, baita argi berria ematen.

Batìkano-ko bigarren batzar nagusian, gotzaiei buruz artutako erabakietan, "Christus Dominus c. 3-36" delako idazkian, Sinoduen egokitasuna età bearra aipatzen zaigu. Bi arazo aurreratzen zaizkigu: "sinismena ezitzeko, baita zintzotasuna zuzpertzeko". Auxe esaten zaigu oraindik: "Elizbatzar onek Sinoduak sortzea nai lituzke".

1973 garren urtean, Erroma-tik Paulo VI Aita Sainduak aginduta, Batikano-ko batzar nagusiaren erabakiak zabaitze-arren, argibide bat idatzi zuen, gotzai guztien lanari buruz. "Directorio sobre el Ministerio Pastoral de los Obispos" daraiña idazki onek erderaz izena. Irakaskintza onen laburpena ause da:

Lenengo: Sinoduaren buru gotzaia dugula.

Bigarren: Sinoduaren batzar nagusira apaizak, erreligio-soak eta kristau soillak deituak daudela.

Irugarren: Sinoduan, Eliz osorako artutako erabakiak lekuratu bearak daudela.

Laugarren: Lekuko Elizaren artzantza eratzeko agintzen du.

Bostgarren: arkitzen dirán buruaustek dañen artean askatzeko esaten zaigu.

Seigarren: okerrak eta iritzi biurriak zuzentzeko agintzen du.

Zazpigarren: Elizbamiti osoan eta toki berexietan, elizkizun egokiak eratzeko bidaltzen du.

Gainera, beate gauza asko adierazten zaizkigu Sinoduaren antolaketak egiteko; gai oneri buruz talde berexiak sortzea. Gai oietatik zenbait aipatzen zaizkigu: teologia, elizkizunak, bizineurriak, alkarlaguntza, artzantza, gogobizia eta abar. Gainera askatasun osoa bear dala, adierazten zaigu. Azkenean gotzaiak bakarrik neurtzen ditu erabakiak eta legearen indarra ematen die.

Ikusten dugunez, Sinoduak, gaurko Elizak dionez, garrantei aundi ta oso osoa du. Ori dañu zuzen eta garbi irakasten zaigu Erroma-ko idazki ortan.

Bi idazki oietan auxer agertzen zaigu: Sinoduaren garrantzia gotzaien elizartzantzarentzat eta elizelkarte osoak azaldu

bear duen kemena. Orregatik apaiz eta kristau soillak, ainezuzen eta begi onez deituak daude.

Teologia aldetik arazoak

Teologiaren aldetik ikusi nai ditugu orain, Sinoduaren bearra ta izaera.

Eliza, ba dakigu, ezaugarri bat dala, anaielkartera, sinis-menari esker sortua, gotzaiak batutzen eta zaintzen duna. Elkarte ori Sakramentuetan zuzpertzten eta azaltzen da.

Elizaren eginkizuna bat da: Bern Ona zabaltzea eta sinistetunak Kristoren emaitzarekin zuzpertztea. Beni Ona zabaltzen eta Sakramenduen bidez Eliza sortzen da.

Ain soil, berriz, itz egin ezkeru, oso motz geldituko ginake. Ez genuke egi osoa argituko.

Bern Ona eta Sakramentuak aipatzean, eginkizun baten berri eraaten dugu, bainan bi gai oiek beste zerbait eskatzen du te: antoiaketa jatorra. Sakramentuak erabiltzen ditugula gai osoa daramagu eskuetan. Beste ezertarako ez da astirik gelditzen.

Baina Berri Ona zabaltzeak eta Sakramentuak eratze orrek, kristauen eta gizabidearen goraberen eta giroaren beste ezaguera, azterketa eta moldagintza eskatzen dute. Sakramentuaren eginkizuna bar da: Kristoren doai berexia banatzea. Beste ezertarako lekuri ez da gelditzen. Elizartzantzaren buruaustek sortzen direla, ezin ditugu korapilioak askatu Sakramentuak erabiltzen ditugula. Gainera, norberak bere aldetik ezin ditu erabakiak artu. Eliz osoak bildu bear du, Kezkak eta argia denon artean aztertsearekin elkarte osoak irabazten du. Gotzaia burua da, ez Eliza. Burua ez da

soma. Beste aldetik, bururik gabeko gizonik ez dago. Elizak agertzeko, bum bat bear du, baita soina ere. Elisa osoaren ona aztertzen dugula, burua ta soina alkarrekin bear ditugu euki. Orregatik Elizaren batz arrak, bertan sortzen dir an korapilloak askatzeko, bear bearrezkoak ditugu. Elkartearen ona danen artean sortu bear da. Burua bakarrik ez da naikoa. Soinak bururik gabe ezin du ezertxore onik egin. Elkarren ontasuna danen kontua da. Orixe da ba, Sinoduaren elburua; danen artean buruausteak leuntzea, Elizaren giroa bizkortzea età anaiarteko lokarriak indartzea. Sinoduak, Elizaren etorkizuna età giroa, bide zuzenetik, antolatzen du. Bakoitxak bere aldetik ezin duna, danen artean egin genezake. Etorkizuna ere ezin lezake gizon batek antola, elkarteko ekintza da. Eliza elkarte osoa daukagu età jokabide zabaletan, eskuak ugaritu bear genituzke.

Sakramentu età Berri Ona zabaltzeakin, Eliza bizkortzen da. Anaiarteko indarrak batutzen direla, otoitzean, azterketan eta lanean Eliza osoa edo lekukoa, Jainkoaren giltzarria bezala gizartearen erdian agertzen da. Sinodua Elizaren batz arra da: azterketa, lana, otoitza, Berri Ona età Sakramentuak erabiltzen dira. Billera ortan Gogogurena edo Espiritu Santua egiz EH^z osoaren bizitza zuzperten alegintzen da lanetan. Sakramentu berexian giza soilia edo elkarte, Espirita Santuak indartzen du, Sinoduan berriz lekuko Eliz osoa, Sinodua dugu, Elizan, Espiritu Santuaren Sakramentu osoa, borobillena età bete betea.

- Atal ontan ina arazo nagusi agertzen zaizkit:

Lenengo, Eliza ez da bakarrik liturgian azaltzen.

Bigarren, Eturgiaren eginkizuna ez da Elizaren bumauste ta antolaketak berdintzeko egina.

Irugarren, Elizak, anaiarte ta elkarte nagusia bezala, garbiketak, lañaren arauak età erabakiak artu bear ditu.

, Laugarren, Gizasemeak Jainkoaren bizia euki dezaten, Espiritu Santua Sakramentu osoa bezala agertzen zaigu.

Elizak Sinodua erabiltzen dula, Espiritu Santuaren ekintza, argi età zabal agertzen du. Eliz osoan Espiritu Santua lanean dabillega, Sinodua dugu ezaugarri.

Azkenean, auxe esan dezakegu: Eliza, Sakramentu en bidez jaio età azitzen da, bainan Sinoduaren bitartez alkarren arteko lana zuzentzen du. Orregatik liturgia bakarrak ez du agertzen Elizaren nortasuna, Sinodua ere bear du, bere eginkizun osoa osatzeko.

Elizartzantza aldetik

Elizartzantza egikiak Sinodua eskatzen du. Bear onen aztama gizasoinan gertatzen danetik dakigu. Eliza elkarte ba da, Elizaren lana, elkarrekin antolatua bear du izan. Lana aurreratzeko, buruak bakarrik ezin du dana egin età giza soina ezin diteke gar ai età berdinean atsedean gelditu. Buruak argitu età agindu lezake, beso eta bularrak laguntzen diotela.

Gotzaia, EMzan burua dugu, ez da Eliza. Elizartzantzaren aldetik, elkartearen ontasuna billatu bear dugu età ortarako danen besoak bear ditugu.

Gainera, lanean batasuna bear da sortu. Nola lortu dezakegu batasuna, gizasemeok bildu età alkartu gabe? Eliza, lañaren elkarte bezala azaltzeko, Sinodua dugu autapen egokiena. Alkarteko lanetan, danen asmoak agertu bear ko dira, bearrak zenbaterañoak ditugun jakiteko età neurtzeko. Giro ori, Sinodo batean bakarrik erabilli diteke, ez beste inun.

Sinodorik gabeko Elizbarruti bat, mótela eta danetarako aula gelditzen zaigu, batez ere gogoartzantza eratzerakoan.

Gogogurena edo Espíritu San tua, laneaii daukagu Elizan. Bear bezàlako tokia egiten zaiolà jakiteko, Sinodua bakarrik dugu ezaugarri. Eliz artzantza, Espiritu Santua eta Sinodua, iruak elkaturik dabiltz.

II. Sinoduak edestian

Atal ontan, bi gauza agertu nai genituzke: Bat, joandako gizaldietan, era askotako elizbiltzarrak ikusten ditugu eta bi, eredu jakingam batzuek nai genituzke azaldu, Sinoduen emaitza edestian nolakoa dan jakiteko.

Sinoduen era ezberdinak

Edeslariak, era askotako elizbatzarrak aipatzen dituzte. Batez ere, oien artean iru motakoak agertzen zaizkigu garbi asko.

Bat: Elizbatzar nagusiak ditugu, Eliza osoarentzat era-tuak. Eliza zabaleko gotzaiak biltzeko eta itz egiteko esku-bide osoa daukate. Apostoluak il ezkerotik, 21 Elizbatzar nagusiak izan dira. Aurrena, Nizean bildu zan, 325 garren urtean eta azkena 1962-1965 urtetan Batikano II Elizbatzar nagusia izenarekin ezagutzen duguna. Aita Santuarekin batean, Eliz • osoa zuzentzen du Elizbatzar nagusiak. Orain, Batikano-ko Elizbatzar nagusia ezkerotik, Aita Santuak eüzbatar txikiak edo laburrak gotzaien ordezkariekin zuzentzen ditu. Elizbatzar oietan gai berexiak aztertzen dituzte aldiro.

Bi: Lurraide berexietako Elizen batzarrak ere askotan agertzen dira edestian. Enda edo gizarte berexi bateko gotzaiak edo artzaiak biltzen dira, alkarren arteko korapilloomak askatzeko eta Eliza, lurraide zati batean zuzpertzeko. Edesti osoan, garai eta lurraide ezberdinetan arkitzen ditugu ereduak. Mailla ontan ezagutzen ditugu sortaldeko Elizen Sinoduak; Melkitak, Armeniotarrak, Siriotarrak, Kaldeotarrak, eta abar.

Ira: Ba ditugu ere lekuko Elizen Sinoduak, Elizbarruti bakoitxari egokitzen zaizkionak, gotzai bakoitxak bildu dezakena. Edestian aurrena Auxerre-koa dugu (585), ondotik Oska-koa (598).

Gure lan ontan, irugarren erako Sinoduari buruz ita egingo dugu geiena, baina bigarren maillekoa ere aipatuko dugu, Euskalerrri osorako Sinoduari buruz itz egiterakoan.

Elizbatzar oien bearra, Latran-go IV garren batzar nagusiak (1215) agertzen du. Gauza berdina esaten zaigu Trento-ko Elizbatzar nagusian (1545-1563): urterò eratzeko agintzen du: Gai oneri buruz Benedikto XIV garren Aita Santuak liburu ederra argitaratzen du: "De Sinodo Diocesano" izenarekin egina (Roma 1748).

Zenbait Sinoduen garrantzia eta eredua

Sinoduen bitartez, lekuko Eliz berexiak indartu ziran. Gertatutakoa ikusteko, eredu batzuek bear ditugu artu. Bat, antzinako garaikoa dugu, Bisigotiko Elizarena. Bestea Ipar Ameriketako Elizarena eta azkena ludiaren beste muturrekoa, Txina-ko Elizarena.

Bisigotiko Eliza, Espanian eratua genuen. Nortasuna, azitzea eta bizkortzea, Toledo-ko elizbatzar nagusien bidez

lortu zuen. Irugarren batzarra, 589 garren urtekoa, Toledo-n ere eratu zan; Errekadero erregeak, katoliko Elizaren sinismena bereganatu zuen eta San Leandro-ren itzalpean aurrerapen. arrigarriak egin ziran. Dañera, emezortzi Elizbatzar nagusiak zenbatzen dituzte. Batzar oietan jaio ziran Espaniko lekaide bizitza, liturgia, artzantza eta gizabidearen arazo nagusiak. Naiz ondotik eraso gogorrek etorri, ondo zuzpertzutako sinismenak iraun zuen eta etsai gogorrenak makurtu zituen. Bide ortatik sortu zitzaigun gaurko sinismena eta oraindik ortxen irauten dugu.

Bigarren ereduak zerbait erakusten digu; Ipar Ameriketako Elizbatzar nagusiak dira. Eliza Katobkoa, Ipar Ameriketako, arrotza bezala ikusia zegoen, bertako landarea protestantismoa zalako.

Lenengo Elizbarrutia Baltimore dugu, emezortzi garren gizaldian sortu a. Bertako, Elizbarruti ortan, 1829-1849 garren urtetan, zazpi batzar nagusi eratu zituzten. Gero, nazio osoko ebzbarrutiarentzat beste iru batzar nagusi zuzentzen dituzte; azkena 1884 garren urtean ospatua. Batzar oietatik sortu zan Ipar Ameriketako Elizaren bizkarrezurra; parrokkiko ikastetxeak, ikastetxenagusiak eta kristauntzat oinarriak.

Irugarren eredu bezala, Txina-ko Elizaren batzar nagusia aipatzen dugu. 1924 garren urtean Shanghai irian eratu zen. Bülara orreri esker, Pio XI garren Aita Santuak, 1962 garren urtean, lenengo txinotar sei gotzaiak sagaratu zituen. Orrela ba Txina-ko Eliza zuzpertzut zan eta sinismen gabekoen zigorrari arpegia email dio eta zutik irauten du.

Beste eredu asko ditugu, baina emengo iru auek naikoak elizbatzar nagusi oien garrantzia, nolakoa dan ikusteko.

III. Sinoduaren bearra

Euskalerriko Elizbarrutietan

Sinoduak ba al du garrantzirik gaurko Euskalerriko Elizbarrutietan?. Galdera oneri eman bearko diogu erantzuna. Gai au urratzen ez da errexa izango.

Batzuentzat Sinoduaren bearrik ez

Aurrez aurre, arazo nagusi bat agertzen zaigu gure begi aurrean: ainbeste urtetan Sinodorik ez danean izan Euskalerrian arrazoienbat izango da ortarako. Erantzuna ere garbia da: Sinoduaren aurka daudenak geienak dira. Zergatik ori? Sinodua batzar irikia dalako età euskal elizgizon askok burua estua dugulako?

Antropologiaren aldetik gorabera aundiak ditugu età askotan gizasemeak jokaera berdinak dituzte età ez jokabide zabalak, oso estuak baizik.

Askotan auxe gertatzen zaigu: buruausteak txarrak direla sinisten dutenak, txapeldun. Auentzat korapilloak askatzen ez da asti geiegi igaro bear: buruauste zailiak askatzen alpe-niko lana da, età errexak berriz berez arkitzen dute irtena.

Ba dira iritzi mingarriagoak agertzen dituztenak:

"Nastutzailleak bezala artuak dira, agintariekin lana egiten ez dabiltzanak. Buruaustea askatu naian dabillena, belar txarra bezala ikusia dago.

Lana egitekotan, nagusiarekin egin bearra noski, bainan ia beri, talde berexi ortan, lana egiteko sartzea arroní zailla da; talde oiek estuak eta arront itsiak diralako.

Talde berexi oietan ez daudenei etzaie kasorik egiten: Bxusten ez ba lituzte bezala begiratuak daude.

Agintarien eskubian ez ba zaude lanean, zure asmoak oso gutxi balio dute, zure iritziak aurkeriak bezala artuak izango dira, jokabide eldu gabeak bezala. Goitik bera ikusia izango zera. Orrela elkarteko lanak ez dira ontzaz artuak, taldekoak baizik.

Dana dala, Euskalerriko Eliza indartsua zalakoan geunden bainan giro ori sakon aztertu bearrean gaude. Indartsuak ginalakoan bizi ginan eta Eliza, talde baten ekintza zan, ez elkartearena. Orregatik, ez genuen Sinodorik.

Sinodua elkartearen ekintza

Eliza ez da talde bat, sinisdunen elkartea baizik. Orregatik Elizaren azterketa nagusia ez lezake egin talde batek, elkarre osoak baizik. Euskalerrian bear bezala garbitu-, apaindu eta indartzeko talde batek oso gutxi aurreratu lezake. Ori elkarre osoaren lana da. Gainera lañaren aurretik, azterketa sakona egin bear litzake eta azterketa ortarako, begi belarri danen bearra dago. Euskalerrian, gure EMzbarrutietan talde-tan bizi gera eta Eriza ezin diteke talde baten eskutan utzi, elkarteko lana dalako. Alderdi ontatik jokatuaz bakarrik, Elizaren osasuna zaindu dezakegu.

Eskubia nun dagon jakiteko, ezkerra arkitu bearra dago. Akatsak ez dira alde batean bakarrik, eta utsuneak billatzen danok alegindu bearko dugu.

Doaiak ere ez daude talde baten eskutan, elkartearen beso eta soinetan baizik. Elizak danen laguntza bear du eta dan danak alkartu nai ditu, ez liteke talde batekin bakarrik gelditu.

Zenbateraino Batikano-ko Batzarraren erabakiak erabilli diran Elizbarrutietan ikustea, elkartearen lana ere izango da.

Danen ekintza ere izango da garbi ikustea Elizbarrutietako aurrerapenak edo atzerakadak. Taldearen • azterketa beri motza gelditzen da, elkartearena berriz z ab ala.

Bidè berriak ere urratu bearko dira eta luberriak antolatu geroari begiratuaz. Garaia da Parrokiaren etorkizuna elkarrekin ikusteko, baita ere Elizbarrutiarena. Batikano Batzar nagusiak ez ditu gai oiek geiegi sakondu. Sinoduen bidez bidè berriak urratu bearrak daude.

Azkenean eHartzantzaren alorrak danen artean urratu bearko ditugu eta ortarako azia berexia aukeratu eta antolatu bearra dago.

Euskalerriko Elizbarrutien Sinodua elkartearen lana izango da eta emen aipatutako gaien mamia argini bearra daukagu, ekintza onen alorra eta mugak ondo ikusteko.

Emendik aurrera oso ondo ulertuko dugu zergatik Euskalerriko Elizbarrutiak Sinoduaren bearra duten, zertxobait aurreratzeotan.

Eriotzaren aziak

Eriotzaren aziak, Elizbarrutietan nolakoak diran ikustea izango da aurreneko elkartearen lana. Nere aldetik, ikusi edo entzun ditudan akatsak aipatuko di tut. Bakoitxak errenka luza dezake. Eriotzaren aziak, batzuek zarrak dira. Bi ikusten ditut. Bat, ezker eskubiko ikurrina sinismenaren aurretik altxatzea. Oietatik batzuek garaille agerru ziran eta zigorra gogoz banatu zuten. Orrela ikusi genituen, apaizak, nagusi, agintarien ondoan eta beste apaizak, arrazoiarekin edo arrazoirik gabe ankapean, zapalduta, zigortuak. Ori dana gure Elizbarrutietan gertatu da. Irabazleak, iri nagusietara, goian jasoak, besteak erritxikietan aztuak, usteltzen betiko. Erbestera, iges joan ziranak erabat aztuak. Etzituzten inork agurtzen. Giro illun ori apaizen artean zabaldu zan, baita kristauen artean. Gurutzearekin ankapetzen zituzten anaiek, baita zigortzen Kristoren maitasunaren aitzakiakin. Orrela betiko ixildu zituzten elizgizon argi asko eta ori dana gurutzearen itzalean.

Ikusi ditugu, ere, eltze beroaren zai, beti zeuden apaizak eta elizgizonak. Oliua bezala beti uraren gainean apar dario agertu bear. Agintzeko beti zai eta agintarien ondoan bizi bear. Gizon argiak eta gogojardunetan iaioak zokoetan eta errigizon utsak agintzen edo agindu bear luketenei indarra kentzen. Beti indarraren bilia azpitik edo goitik, naiz oso gutxi balio. Auek Berri Ona, agintaritzaren ankapean estaltzen dute.

Gure azken guda giroan —eta ondoren— zenbat jokabide orrelakoak. Oien zainak sustraitik ateratzen lana: Eliz-gizonak ere gizon izaki.

Borroka ederra ere izan da, len, gazte ta zar deritzan taldetan. Zarrak, indarrari eusten zioten, besteak gazteak diralako aitzakiarekin b aztertu ak ziran. Gazte itza, ezjakina

bezala artua zegoen. Batzuek gurutzearen itza erabiltzen zuten, besteak gizadian dauden Jainkoaren aztarnak. Orrela gurutzea eta izadiko igelak, aurrez aurre, baia bestearen aurka jartzen zituzten. Gauzak barrendik ikusita bestelakoak dira: aitzakiak ugari gazte agintaritzaren bideak ixteko. Orrela Eliz an beti bide extuak agertzen zirala dirudi geienentzat, besteak berriz jaun eta jabe, beti nagusi. Egiz esateko, nagusitza ez ote zegoen esku zekenetan?

Gaurko giroan, gaitz berriak sortu zaizkigu. Bat, danetan aundiena, apaizuztea; Jainkoaren aldetik, Elizaren zigorrik aundiena dugu. Len, bakan joaten ziran. Orain eunka ditugu Euskalerriko Elizbarrutietan. Orrek zerbait esan nai du ta ba da gar aia gertakizun ori danen artean aztertzeke.

Zergatik joan dira orrenbeste apaiz?; batzuek .ixillik, besteak zalapartaka eta begi illun. Gorroto orrek zerbait esan nai ote du? Txarrena, gainer a, ez da ori. Txarrena, besteak, apaizak ataka gaindik jauzika doaztela ikusiaz poztutzea da. Zerbait oso txarra gertatzen da gure Elizbarrutietan ori dana ikusten dugunean.

Batzuek, erabat oztuta aide egin dute. Sinismen berorik ez dute nunbait ikusi aldamenean, indarkeriaren usaia baizik.

Besteak, elizgizonen giroa zekena dela, diote; batzuek agintzen eta besteak beizai edo mezalaguntzaille. Aurrerabiderik ez dutela izan Eliz an. Itxura zaintzen dakitenak, beti goimaillean eta lana gogoz egiten dutenak morroi. Orregatik, aspertuta, bestelako bizi berri bat nai dutela asi.

Aide egiteko arrazoi asko ematen dituzte ta aztertu bearak daude, arantzaren txertua nun dagon jakiteko. Beste batzuek agertzen duten lasaitasuna zer dan jakin bearko genuke.

Apaizuzte guzti oiek ez aztertzearekin asko galtzen dugu. Urrats batzuen esan aia aundia da. Berak diotenez: "Apaizgai-ikastetxean Elizaren eredia agertu zitzairen, gero apaiz egin zirala, ez dute len azaldutako Eliz ori arkitu, bestelakoa baizik, aizatua, agintaritzari lotua, maitasun ezezkoa eta kate guzti oiek autsi dituzte gogotik. Elizan ez dute, anaiartean egitazko Jainkoaren aztarnik ikusi, aundinaia eta gorrotoa baizik eta zuzen asko joan zaizkigu alde. Elkarrizketa nai zuten eta etzaizkie ateak iriki, itsi baizik. Elkarte baten billa ibilli dira eta beti biotz gogorak eta zekenak arkitu dituzte. Erizaren izena bai ezpañetan, bainan egitazko elkarte zaila ikusten eta asmo ori gogoan zeukatenei parra egin zaie. Orregatik daude zauriak irikiak eta minberatuak. Beste batzuek, ezeren aurrerapenaren itxaropena galdu dute. Ta beri esku ezkutuekin nagusitzari eltzen ibilli dirán oiek eta asmo egokiak zanpatzen, goi maulan, gallurrean ikusi dituzte. Aitzaki batekin edo bestekin, beri makillakin agintzen, naiz art aldea, sakabanatua izan". Apaiz izateari uzteko azaltzen dituzten arrazoi guzti oiek egia ote? Ezin utzi beintzat azterketa sakon bat egin gabe.

Beste gaurko gaitza bat; politika. Elizaren oinarri ipini nai dute. Danen aurretik sozialismoa ekarri nai digute eta gero Berri Ona zabaldu. Askatasuna, indarkeriaren bidez sortu nai lukete ta gero maitasuna ondotik ekarri. Oien aurrean, asieratik, Berri Ona orpotik asita zabaldu nai dutenak, lur ustelaren arrak bezala ikusiak daude. Erria, politika eta askatasuna dabilzkite ta besteak mamuak bezala artuak. Maitasunaren orde z gorrotoa eskeintzen digute.

Lasterkariak ere ba ditugu, baita ere atzeraka dihoaztenak. Lasterkariak, beri aurrera jotzen dute, naiz oso gutxik atzetik jarrai. Gainera itzak berritzen dihoaz eta gaur ontzaz artzen dituztenak, biar aldatuak daude. Gauza berdina esateko itz ugari dituzte. Itz asko bai, bainan utsak. Itzak ezik, biotz estuale eta zekenak; eskubide asko eta betebear gutxi.

Jaso ditzagun gure Elizbarrutietan agertu oi izan dirán beste kezka batzuek ere.

Eragozpide aundienetako bat, aur biurtutako buruak, ekintzen beldurra dute. Beti beldurrez dabilte età mainerà dan daña Elizan ontzaz artzen dute. Ez dakite zer dihoan aurretik eta zer atzetik. Begi berdinekin begiratzen dituzte gauza guztiak; aurren lanak, aurkeriak. Gorrotoa eta gaiztakeria eta ezin eramana berealaxe zabaltzen dituzte. Ez al dira aur biurtutakoak ainbeste apaiz eta elizgizon, apaizgaietxetik aterata ez dakitenak zer egin eta eguna ezin illik dabiltzanak? Aide batetik egurastera, jatera, jolastera eta bestetik elizkizunak oso axaletik dabilzkite. Apaizgaietxetan asti danak bete beteak zituzten età andik alde egiterakoan ez dira ñor, eguneroko lana burutzeko eta eratzeko.

Ortxen ere ditugu eriotzaren aziak, ez anka eta ez buru lanean dabiltzanean. Ortaz oroitzen gera toki berdinean elkarrekin ainbeste erlijioso etxe ikusten ditugunean eta bestetan utsikan. Ba zegoen Donostin kale bat Zeruko Bidea deitzen zutena. Ate batetik asi eta azkena arte konbentu besterik etxegoen. Ori Ategorrietan gertatu zan Karmelo Ballester (1943-1948) età Font Andreu (1950-1963) gotzaien garaian. Bururik gabeko lañaren aztamak ortxen daude.

Oker guztien oñarri, agintarien adiskideak jotzen dituzte askok. Zerbait egin nai ba duzu, agintarien adiskideen adiskidea izaten ikasi bearra. Agintarien adiskideen taldeak dutela itz a eta otsa. Talde txiki batek eusten ditula lañaren lokarriak, baita ixten lanerako ateak. Talde ortan sartzen ez ba zera, bidé gutxi dituztela irikiak, elizlan jatorretan. Ate oiek jo gabe utzi ezkerro, ezurak bazterren batean usteltzen gelditu bear.

Eriotzaren azi oien zainak, Euskalerriko gizonaren antropologian arkitu bear ditugu ere. Azpilana Elizan ikusita-

rokoan, gure baserrietan noizbait gertatzen danarekin neurtu dezakegu. Berez, euskal gizonak duen alderdi zatarraren aztarna agertzen zaigu. Nolakoa da alderdi txar ori? Zuri, zuri ikusten dugu, aurrez agurtzen zaizula eta atzetik bidea zulatua utzi dizu.

Zenbat aldiz ikusi dut baserritarra sasi tartetik auzokoari begira dagola. Begiak ez dizkio gainetik kentzen, baina asteak etorri eta asteak joan, ez dute alkar ikusten. Aleginak egiten dituzte alkar ez topatzeko, itzik egin gabe ta nundik aide egingo duen asmatzen dabil, auzokoa ez topatzeko. Nunbait topo egin ezker, elkarren arteko lanak ez dituzte aipatuko, eguraldia baizik. Aize xuri, egoa edo iparra erabili-
•lloko dute, gora ta bera, baina bear lituzketen gaiak ikutu gabe utziko dira. Erria alkatu ezker ardozatoaren inguru an azoka gaia erabili-ko dute ta beste norbaiten sal-erosketak edo sosak astinduko dituzte, baina bakoitxak norberenen xulik.

Lanean ere ikusi ditugu, baserri batzuetan, igande ta jai egunetan. Orrela, etxe batzuetan danen minganetan erabili bear orrelako baserritarrak igandetan lanean ari dirala, baina aste egunetan oiek berak, atsedean, ez bai dute in or lanean noia dabil-tzan begiratzeko. Orregatik, lanari aste egunean uzten diote. Batzuek zerkautsiko ta plazagizon jaio dira. Ezketan iaioak, baina etxean amak lana egin bear, jan nai ba dute.

Gure Euskalerriko Elizbarrutietan gure baserritar auen modura ez ote dugu jokatzeko? Elizako giro txarraren oinarri, asko tan, gure antropologiaren alderdi zekenak bait ditugu.

Arnas egokiaren aztarnak

Nun dauden Euskalerriko Elizak edo sinistedunak dauzkatena onari sendoak jakitea, izango da Sinoduaren lana.

Nun dauden indarraren sustraiak jakitea da ere gure galdera. Bakoitxak azal dezake bere iritzia.

Nere ustez lengo Elizaren emaitza sakona, bi malletan, eratu a ikusi bear dugu. Mailla batean, Euskalerriko sinismenaren onarriak izango ditugu. Beste maillean berriz, Elizak euskal muina sartuak ditun zainak.

Sinismena eta erria, bi mailla oietan arkituko ditugu ipiniak abe sendoak.

Ikus ditzagun, sinismenaren aldetik eskuratu ditu gunabeak. Neretzat iru dira: gogojardunak, kristauikastetxeak eta arrotz errietako euskal mixiolariak.

Euskalerriko sinismenak zor aundiak ditu, gizaldi, Euskalerrian, eunka eman dir an gogojardunekin. Urteak joan eta urteak etorri, gogojardunen bitartez, lan ikaragarria egin da. Euskara bikaina erabiltzen zuten mixiolariak. Deus Karda-beraz, Mendiburu, Garikoitz eta abar. Euskaldunak, eunka jo aten ziran mixioetara. Entzuten zuten euskara garbia, jatorra, errikoa, soilla, aberatsa zan. Gizaldiak joan eta gizaldiak etorri mixio oietan aurkitu du euskalgizasemeak sinismenaren sustraia ta jatortasuna. Gure erriak bide ortatik eraberritu dira. Gainera, ortxen ikusten zan euskara garbia eta erruz eta gogotik abesten zuten euskaraz.

Kristauikastetxeak ere asko lagundu dute Euskalerriko eziketari. Lekaide lekaime ikastetxeak ugari izan ditugu eta millaka gaztetxo bide ortatik joan dira. Nola ola, ortxen, jantzi dira sinismenaren aldetik. Eziketa etzan beti oso egokia baina sinismenaren sustrai jatorrak bide ortatik suspertu dira. Naiz alderdi motza asko euki, ainbeste etxeko jaun andre jatorrak moldatu dituzte.

Arrotz errietan, mixiolari gizon eta emakume ugari euki ditugu, ludi guztiko bazterretan. Mixiolari oien azken agurrak Euskalerrian, gizaseme danak, barrun barrundik ikuitzen zi-

tuzten. Gainera, urrutitik bidalitako eskutitzak bitxiak bezala artuak izan dira. Euskalerrira etorriak, gurutzea noia zabal-tzen zuten agertzerakoan, aoa irikita eukitzen zituzten danak. Mixiolari oiek Euskalerriko sinismena berotzen ziguten.

Euskal ereintzaren aldetik, abe sendoak zuzpertzitu dituzte Elizak, gure errian. Bakoitzak errenka luza beza. Euskal-jakintzaren aldetik elizgizon egokiak euki ditugu: zerbait esan nai digute izar e der batzuek, Azkue, Baran diaran, Lekuona, Iratzeder, Orixe eta abar, beste askoren artean.

Azkuek, lau lan goimallekoak utzi ditu, bat beste bezin garrantzi aundikoa: euskal eliztia, iztegia iru izkuntzetan, erriko elertia eta euskal abestiak. Euskadzaindia sortu zuen (1918). Jakintsuen artean euskara goiko maillara jaso zuen.

Jose Migel Barandiaran, larogei ta amairu urtetara iritxi dalarik, ortxen dugu liburu sendoetan euskal kulturari buruzko lanak zamatzen. 1921 garren urtean Gazteiz-ko apaizgaikastetxean, Eusko Folklore delako aldizkaria sortu zuen. Euskal idazkiak argitaratzeko, 1927 garren urtean Gymnasium delako aldizkaria argira atera zuen. Gaur ogei bburu mardulak biltzen dituzte Barandiaran-en idazlanak.

Manuel Lekuona apaiza ere Gazteiz-ko apaiztegian asten zaigu euskara erakasten, guda aurretik. "Aozko literatura" delako liburna argitaratzen du. Ameriketan, "Harvard" eta "Columbia" ikastetxe nagusietan arkitu dut liburu ori. Bainan emaitzarik aipagarriena euskal liturgia dugu. Beste nunbait, geroxeago ortaz itz egingo dugu.

Aita Iratzeder, Belloc-eko lekaide nagusia dugu. Goi mailako ereslaria. Erruz idatzi du, beti euskaraz, Euskal-errian eta mistikari buruz. Otoitzlari delako aldizkaria sortu zuen.

ÜRiXX berriz, idazleen artean, txapeldun. Euskaldunak delako liburuan, sinismena eia Euskalerrria elkartzen ditu. Effokia da egin zuen Meza-Liburua. Batikano Batzar nagusia-ren aurretik euskal bitxi eta liburu orreri esker. euskaldun askok euskarari elizan eutsi zioten.

Bost gizon auek eman diote gizaldietako indarra Eliz ari Euskalerrrian. Oiei esker Elizak zain sendoak ditu sartuak euskal kulturaren alorrean.

Beste asko eta asko ditugu garranizi aundikoak, bainan ezin danak aipatu. Denei esker, sinismena bizirik dago euskal eiertian.

Euskalerrrian, Elizak, . zor aun dia du langillen artean lanean asi ziranekin. STV izeneko elkartek, bi onarri zitun, bat sinismena eta bestea aberzaletasuna. Espani-ko sinisdun langillen elkartea bainan lenago sortu zan 1911 garren urtean. Euskalerrrian indar aundia euki zuen. Espanian, 1919 garren urtean sortu zuten elkarte berdina eta etzan bein ere bear bezala zuzpertzitu.

Euskalerriko lan giroa berritze aldetik, Jose Maria Arizmendiari itz ala ederra utzi du. Arrasaten asita, beste bazter askotan zabaldu da. Dirukutxa, lantegi eta teknikako ikastetxe berriak bidé berrietan lanean utzi ditu Ortzen dugu gizon bat bizirik zegoela, Elizan gutxi entzuna, bainan urratsak sendoak erein ditu. Noizko Arizmendiari izenarekin goimailako ikaseldarte bat? Bertan bainan ezagunagoa zan Ipar Euskalerrrian. Tolosan etzekiten ñor zan Arrasate-ko izan aundi ori eta muga beste aldetik, gazteak erruz zetorzkien.

Polikarpo Larrañaga eta Ariztimuño apaizak, baserritarrekin lan aundia egin zuten, lurraren jakintza eta sinismena aldetik, gure artean, gis aldi berri bat sortzen. Euskalerriko

Ipar aldean, berriz, eliz gizon eta lekaimeak b aserri tarrentzat, ikastetxe berexiak ugari tu eta eraiki zituzten. Ipar aldeko Euskalerrian, ikastetxe oieri esker, ñurra ondo erabilM da, baita Elizak bete beterik daude. Baserritarren aurreraperrari buruz Eliza asko alegindu da.

Arrotz errian, guda ondotik, iges egindako euskaldunekin ba ditugu goimallako gizonak, lana gogotik egin dutenak; Onaindia kalonjea (Aita Olaso), Iturralde ta Azpiazu apaizak. Gizon oien lana arrigarria izan da. Onaindia kalonjeak, Londres-ko BBC irratiatik, urtetan itz egin du. Aita Olaso millaka euskaldunak entzuten zuten egunero. Iturraldek, anaiarteko gudari buruz bizpairu liburu idatzi ditu. Idazlan' oiei esker Eliza eta euskal apaizak, nundik ibilli ziran dakigu. Geroari begira, ori arrobia! Azpiazuk ere ba ditu bizpairu liburu eta errialde askotako presotegietan ibilli da, gizon zapalduen aide lanean. Iru gizon oien emaitza ez da txantxe-tan ibiltzeko ipuia. Ludi osoan lan ugari egin dute gizonaren askatasunari eskua luzatu naiez eta galduta zebiltzan euskaldunei laguntzen. Burniaren indarra dute ta mugak, inoren itzalik gabe, gaintzen zituzten. Gizon oien lanak bear bezela aztertzeke urteak bearko dira.

Ikastolak sortzen euskal sinisdun eta elizgizonak izan ditugu txapeldun. Ego Euskalerrian, Elbira Zipitria daukagu, danen bum. Bi gauza nai zituen lotu, ikastolaren bitartez, sinismena eta euskara. Lenengo ikastola, Donosti-n irikitzen da, 1924 garren urtean. 1936 garren urtea arte, beste erri askotan eraiki zituzten: Tolosa, Bergara, Erreterri, Andoain. Guda ondotik Elbirak ereikitzen . du Donosti-n lendarbiziko ikastola. Kristau zinezkoa dugu eta sinismen onen emaitza dugu emakume onek egindako lana. Gainera, emakume onek arkitu zituen euskal aditzaren sustraiak eta ain zuzen NOR-NORI-NORK izenarekin bataiatu zituen.

Kristauikasbide ta ikastoletako euskal Mburuak argitaratzen, guda ondotik, ikaragarritzko lanarekin ortxen ibilli zan Maritxu Barriola andereñoa. Garai artan, lan ortan, bakar bakarrik ibilli zitzaigun.

Ipar aldeko Euskalerrian, berriz, Mitxelena apaizak sortu ditu ikastolak, sinismena eta erriko euskarari eusten diotenak. Gizon onek ere euskaraz liburu asko eratu ditu.

Oraindik atzoko emaitza, euskal liturgia dugu. Elizaren liturgia erabat euskaraz itzulia izan da. 1974 garren urtean Erroma-n argitaratzen zuten berri au: Erroma Elizako liturgia Batikano-ko Batzar nagusiak agindu bezala, "245 izkuntzetan itzulia izan da. Izkuntz oiek orrela eratu ak daude ludian: 144 Afrika-n, 32 European, 9 Ameriketa-n, 12 Ozeania-n, 48 Asia-n. Izkuntza oietatik bat euskara da. Itzulperregoki oneri esker, arrotz errian, Ameriketan ain zuzen, orduen otoitza euskaraz egiten dut, egunero, gure arbasoen izkuntz an. Meza erderaz edo ingelesez em an bear dut, baina otoitza, il arte, euskaraz izango da neretzat. Lan ori, eliz gizon batzordeak egin dute. Danen buru Manuel Lekuona dugu eta Ipar Euskalerrian Aita Iratzeder.

Euskal liturgi alorrean, Lazkao eta Estibaliz-ko beneditarrak asko lagundu dute, batzuetan bularra eskeniaz, beste tan azterketa zorrotzekin.

Euskal abestiei buruz berriz, Ierro luzea, euskal abeslari elizgizonena. Elizari emaitza guztiz ederra utzi diote. Aita Lertxundi Ipar aldean, baita Garbizu eta Olaizola jaunak ere egoaldean, aipatzea bidezkoa da; Aita Donostia kaputxinoa, bere aldetik bakarrik izar argitsua dugu. Gizon onek idatzi eta bildutako abestiak liburu askotan zenbatzen dira. Gizon argia zan, baita artista bikaña. Gizaldiak aurreraízen dijoaz-tela, izar au gero eta geiago aunditzen joango da.

Bai liturgi eta abestietan, sinismenak eta euskal muina eta usaiak bat egiten dute. Zailla izango da bata bestetik askatzen.

Liturgjako izkuntza, berez, bitxi eta edergallu izango da, izkuntzaren edertasunaren neurria gizaldietarako. Gure abestiak berriz, Frantzi-koekin eta Espaini-koekin neurtuta, danez gain agertzen zaizkigu, indarra eta edertasuna batu-tzen dutelako eta ori dana Jainkoaren osperako. Euskalerrian entzuten diran liturgiak ba dute egokitasuna eta kristoren amas bizia.

Arnas indartsu onen aztarnak edo zañak ere euskal antropologian arkitzen ditugu. Aita Larramendi, Aita Mendiburuk eta Aita Iratzederrek askotan goratzen dute euskal gizasemeen zuzentasuna. Ortik asita, mailla ortan bertan azitzen dijoa kristau sinismena. Alderdi zuzen oiek bizi berri baten aziak ditugu. Justino Teologoak, "Gogoaren aztarnak" deitzen ditu (I Apol. 46; II Apol. 8). Nolakoak dira euskal nortasunaren alderdi egokiak? Itzari eusten dion gizasemea dugu. Itza malte du: garbia, egokia, neurtua. Emandako itza betetzea, egokia zeritzaio. Eginalak egingo ditu itz ori bete-tzeagatik. Orixe izango du gallendu bearrezko muga. Egizalea dugu eta egiari bizkarrik ematen ez dakina.

Euskal gizasemea, etxera, biltzen dana dugu. Ez da kale bazterretan gelditzen, gutxiago oraindik gaba pasa arrotz etxetan. Etxeko bidetan alegintzen da arazo danetan.

Lanari eusten dio. Asitakoa amai tu nai du. Eragozpenak ez dio beldurrik ematen. Zefbait egin bear dula ikusten du-nean antxen ibilliko da gauzak atzetik edo aurretik boro-biltzen. Bakardadeak ez dio atzeraka egiten. Bakardadean irauten, nunbait ikasi zuen. Eguzkiaren aurrean, itsas zaba-lean, urez bakarrik inguratua dagoia, iraun. Ipar Ameriketako

arrizko mendietan ardiak zaintzen ditula, bakarrik, iraun. Lekaide etxean arrosarioa eskutan, bakarrik, iraun. Itz ego-kiak entzuten atsegin zaizkio, baina bear danean ixilla da. Orregatik dauka barreneko bizi aberatsa. Eskerrak ere ematen ba daki, baita begiramen zorrotza eskeintzen. Euskaldunen begiak, barreudik begiratzen dute ta barrenar aña s artzen dira. Orregatik, arrotz ari etzaio berealaxe irikitzen baina artzen zaitunean, dana ematen dizu.

Euskal emakumea berriz, eskuzabala genuen eta jarrai-tzen du. Langille porrokatua, aurzalea eta sinismen zinezkoa agertzen da. Onekin dana esana dago.

Orain errega da ulertzen, zergatik millaka joan zitzaizki-gun lekaide-lekaime etxetara, biotz-barren-eta-buru, Jainkoari eskeintzera.

Arnas indartsuaren aztarnak, ugari eta egokiak ditugu Ruskalerriko Elizan. Orregatik luzaro iraungo du.

Batikano-ko Batzarraren itzala Elizbarrutietan

Sinoduan, Batikano-ko Batzarrean aipatu diran gai nagusiak aztertu bearak daude, Elizaren giltzarriak diralako. Zenbateraino ibilliak dauden onarri oiek gure Elizbarrutietan ikusi bearak ditugu. Nere aldetik, gai batzuek aipatuko ditut, nere ustez zerikusi aundia gure alkarteko bizitzarekin dauka-tenak. Bakotxak luza beza gaien zerrenda.

"Lumen Gentium" delako idazkian, bizpau elburu nugu-siei zorrotz begiratzen zaie: gotzaiak dauzkan lankidekin lokarriak zaindu bear ditu. Erriarekin elkarizketa bidè ego-kiena da.

"Dei Verbum" delako idazkian garbi ageri da, Eliza, Kristori esker, zabaltzen dijoala, eta Marx, Lenin edo Rokefeler-ek ez dutela zerbait geiago zenbatzen salbazioko bi-detan.

"Gaudium et Spes" delako idazki nagusian, gaurko ludian gizasemeak zokoratzeko dagon bidea eta giroa aipatzen zaigu. Gizarte eta sendiaren eskubide jatorrak agirian jartzen dira.

"Christus Dominus" delako dokumentuan, apaizak eta lekaideak banaka ezagutzea agintzen zaio. Ezin dunean ori egin, Elizbarrutia zatitu bearra dago.

Apaizei buruzko idazkian (Presbyterorum Ordinis), elkarteko bizitza aolkutzen zaie. Apaizak agintaritzaren gosea euki bearrean, eskua zabaltzea eta elkar ondo artzea adierazten zaie. Kristau soillen laguntza, ontzaz artzen ere agintzen zaie.

Apaizgaien ikastetxei buruz, garbi eta argi esaten dira garrantzi aundiko gauzak: elizartzantza asieratik ereiritzea, gizajatorotasuna lantzea, danez gain gogomailla zaintzea.

Kristau soillei dagokion gaian "Apostolicam Actuositatem", izadi eta Kristoren gurutzean arkitzen diran arazoak lantzea esaten da. Irakaskintza noia moldatu EMzaren ikastetxetan aipatzen zaigu.

"Ad Gentes" delako idazki nagusian, bi gai jasotzen ditugu: bat Diakonaduaren berritzea eta bestea apaizen banaketa. Elizbarrutietan, batzuetan gutxi daude eta bestetan geiegi, iri nagusiak, bete beteak eta mendi aldeak utsak.

Ekumenismoa aipatzen zaigula, beste zerbait datorkigu burura. Elizbarrutietan bertan, ekumenismoaren bearra

dugu apaizen artean eta kristau taldetan. Nola billatu elkartzeko bideak?

Berriemaille lanari eratua dagon idazkiak Elizaren eginkizuna noia eratu bear dan esaten zaigu: egizaletasuna eta iritzi irikiak eukiaz. Elizak ba du berriak emateko deia: gutxinaz, Berri Ona, besterik ez ba da ere.

Erligiosoari dagokion eskubideak aipatzen ditun idazkiak, gai nagusi bat erabiltzen du: gurasoen eskubideak irakas-kintza gaitan. Kristau irakaskintza gaia erabiltzen dala, EMzaren ikastola eta ikastetxeak noia jokatu bear duten, agertzen zaigu. Laguntza bat zor die Elizak sendiei: giza neurrian gaztetxoak ezi eta sinismenaren azia erein.

Sinoduan, Batikano-ko Balzar nagusiaren arazoak aztertzen dir ala, Elizbarrutiaren utsak eta jokabide jatorrak agertuko dira. Lan ori noizbait egin bearra dago.

Gainera Sinoduan, beste zerbait ikus ditek: Batikano-ko Batz arre an aipatu ez diran gaiak eta garrantzi aundikoak deritzaizkigunak. Nere aldetik gai bat aipatu nai nuke: "Gaudium et Spes" delako idazkian, gaurko gizadiaren buru-auste eta gai nagusiak astintzen dira, danak egokiak. Gai oiei buruz argi indartsua ematen da. Lana, langilleak eskubideak luze erabilliak dira. Nere ustez, zerbait aztu dute. Lana gauza bat da, bestea lantokiak sortzea eta eraztea. Lantokirik gabe ez dago lanik eta langilleak ogirik gabe gelditzen dira. Lantokiak ugaritzen nere aldetik gutxi egin dezaket, ortarako gauza ez naizelako. Ni bezala beste asko eta asko daude. Lantokiak ugaritzeko oso gizaseme gutxik daukate esku berexia. Oiei esker langille askok gizabide jatorra aurkitzen dute. Lana ugaritze ortan doaiak daukatenei noiz agertu bear zaizkie esker beroenak? Aide ontatik Batikano-ko Batzar nagusia ixilik gelditu da. Sinodoak aipatu dezake, Batikano-ko

Batzar nagusiak ixildu duna. Lantokirik gabe ez dago giza-biderik. Lantokiak ugaritzeko doai berexia bear da. Noiz eskertuko zaie egokitasun edo doai ori? Egia da, Jainkoa-gandik artu dituzten doaiak gizartearen onerako jarri bear dituztela, kristau elkartasun-senari jarraituz. Baina bestalde, gure denbora auetan, ukamen aundia bear da langille-talde batekin lantegi berri bat jartzeko, arriskuari arpegia emateko.

Elizbarrutien etorkizuna

Nora dijoan Elizbarrutia eta nora eraman nai dugun ikusteko tokirik egokiena, beste danen artean, Sinodua dugu. Ortarako mailla ezberdinak agertu bearko dira. Nere ustez, bide beni bat urratu bearra dago. Bide ortan gai auek agertuko dira.

Egokiena, zenbateraño doaiak dauzkagun jakitea, izango da. Elizbarrutietan, doai asko eta asko daude. O rain arte doai oietako asko ez dira ontzaz artu; gizonak, tokiak, jokabideak edo edergalluak. Leku askotan erortzen utzi dituzte ta auts biurtuak ikusi arte ez dute ajolik.

Elizbarruti bat, danen doaiak aberastutzen dute ta toki askotan alderdi baten doaiak bakarrik ikusten dituzte. Bestea izango ez ba-litz bezala attua edo ikusia dago.

Doai dan danak, lanean jarri bear dira eta asko izatearekin obeki. Elizak danen bearra du.

Ikus lantegietan noia zuzentzen dan etorkizuna: astiro, giroa aztertuz eta galerak bazter batean utzia. Eliza noia moldatua dan ikusita, lantegi gutxik iraun dezakete zutik bide berdin ortan. Jota geldituko brake. Elizan berriz, askotan gauzak ez aurrera eta ez atzera ikusten ditugu. Lo, erdi lo, lo zorrean geiegi.

Talentuen iduria, Berri Onan ageri daukaguna, askotan erabiltzen dugu itzaldietan, baina EHzan ez dago bear bada geiegi ontzaz artu a eta opatua.

Elizbarrutietan, egunetik egunera, lanean ari dira, urrutira begiratuaz egitarau bat moldatzen ez dala. Gotzaiaren adiskidek zer dioten, asko esan nai du: baiñan besteak, txori atsa ote?

Gure Salbatzaileak zerbait utzi ba zigun auxe da: ogia banatzea. Orrekin asko esaten zaigu. Ogia zatitzen dakinak, jakin bear du LANA BANATZEN. Ez, batzuek, dana eskue-tan jan ezin ala eta besteak goserik. Agintariak lana banatzen jakin bear du: lanik gogorrenak indartsuentzat eta errexenak aulentzat. Ez gertatu oi izan dana; gizon argalak belar meta aurrean besoak bildurik eta azkarrak errekan arrantzan; jolasetako, elbarriak soroan eta azkarrenak zugaitz adarretan.

Danen besorik gabe, ez dago etorkizunik. Orixe betetzen du Sinoduak: langilleak elkartu eta lana banani, danek lana egin dezaten. Elizbarrutietan gizaseme geiegi daude beso zabalik. Geiegitan ikusi dugu, gizonak lanerako ondo jantziak etorri diranak eta arpegira etzaie begiratu edo itz goxoekin baztertu dituzte. Askok ere ditugu lana bear bezala egiteko, aide urrutira joan diranak. Gure Elizetan itzak oso xamurrak dauzkagu baina eskuak ez beti garbiak. Begi beltzak beti ardi xuriaren zai.

Auxe da esan nai duguna atal ontan: Jainkoak Elizbarrutiei emaitza eder eta arrigarriak eskuratu dizkiela eta doai auek gaiztakeriz edo errexkeriz oso gutxi erabilliak direla, baita asko betiko galduak. Galdutakoan. arren, ez otoitz egin doai geiago eskatzeko, baizik jokabide jatorragoak eukitzeko. Zomorkeri eta negar geiegi ikusi dugu. Eliza ez da batzuen, danena baizik eta danen artean jaso bear dugu eta etorkizuna moldatu.

Parrokiaren irudi berria

Parrokiak ditugu, Elizbarrutiko bizkar ezurak. EHzbarrutia Kristoren lekuko soina da eta parrokiak soina orren zatiak dira. Elizbarrutia noia dijoan jakiteko, begira parrokiei.

Batikano-ko Batzar nagusiak ez dula idazki berexirik eratu parrokiei buruz ikustea, arritzekoa da. Gai ori ixillik gelditu zaigu. Sinoduak aztertu bearko du eta egia esateko bear aundia dago.

Euskalerrian, maiz euki dugun parrokien eredua, erabat illuna izan da. ffilekin bizi eta gizentzen zan. Iiletak ugari eta orrekin apaizak dantzan. Parrokien arduradunen jokatibea ere maiz illuna zan. Beste parroko kideak etzituen bein ere biltzen, askosez gutxiago mai baten inguruan. Tokiren batean bazkari bat urtean bein eta onekin naikoa. Aginduak, zutik, zoko ertzen batean zeudela ematen ziran. Parrokietako oiturak ere etziran oso atseginak, mingarriak baizik. Parrokietan sinismenak irauten zuen, beste nunbaiteko ikastetxetan lana egiten zalako eta kristau berexien bitartez.

Sinoduak agertu bearko du nolakoa bear duen izan parrokien jokaera berria. Gure aldetik lana urratzen goaz eta bidea arkitzen.

Bat, parrokia, sinismenaren eziketa eratzeko elkarte da. Sinismenaren giroa eratzeko, ikasketak, itzaldiak antola di-teke. Sinismenari garrantzi aundia ematea, egokiena.

Bi, parroki, üturgiaren sendia dugu. Liturgia, EMzaren otoitza eta ekintza da. Bidè ortatik lana egiteko ini gauza bear dira: elkarte bat, ezaugarri garbiak eta otoitz giroa.

EMz baten sartzen zerala, berealaxe oartzen zera elkarte edo eremuarekin topo egin duzun. Elkarte bat, otoitzean ikusi duzula, antxen daukazu, EMzaren zatia bildurik.

Liturgian, sakramentuak dira erabiiMak. Sakramentu itz orrek, ezaugarri bat azaltzen du. Ezaugarri oiek garbi garbirik agertu bear dute, danek argi ikusten dituztela, bai esanaia eta sustraia.

Elkarte otoitzean, berriz ez da errex sortzen. Ortarako bide berexiak bear dira: bat ezin ohea abestia da. Elkarte bat abesten ari dala, lagunarteko ekintzari eutsi dio.

Ini, parrokiako eginkizun berexia ez da eMzbarrenean sortzen, elizatik aide arkitzen diran buruaustei begiratu bat eman bear zaio, gero erantzun zorrotzak arkitzeko eta bearrak betetzeko. Parrokia elkar laguntzeko elkarte da.

Parroki baten indarra lanean dabiltzan taldeak azaltzen dute. Talde oiek nai ta naiez sortu bearrak dira.

Lendabizi, kristau ikasbiderako langilleak arkitu: nomaik ezin du lagundu. Talde oietan ezitzalleak edo ezitzalle gaiak deitu bearko dira.

Gazteak talde berexiak bear dituzte, parroketan toki bat, an barrenean aukeratzeko. Talde oiek gabe, galduak arkitzen dira.

Gurasoak, ere, parrokiaren itz ala età eskuzabala bear dute. Gurasoen taldeak, senidetan dauden buruausteak aztertzen alegintzen dira. Sendien enarri sendoa parrokia da. Gizaelkartean sortzen diran bearrak aztertzeko, ortxen jaiotzen dira taldeak. Bidezkoa kristauen eskuak elkartzea, naigabeak agertzen diranean edo jokabide txarrak baztertzeko. Noizbeinka biltzea azterketa sakonak egiteko, bidez-

koa da. Argiaren billa ez gera asten, illuntzen dula. Gainera anaiarteko giroa sortzen, betiko lana da, ez bakarrik zigorra azaltzen danean.

Parrokiko arduradunen jokabidea ere nolakoa dan, mol-datu bear da. Apaizekin, batez ere noia egin bear duan lana. Apaizak ez dira arduradunaren morroiak, laguntzai-lleak eta anaiak baizik. Kristau soillak ez ditugu parrokiko arrotzak edo auzokoak, sendi berdineko maikideak baizik.

Gai onek zuzentzen ba du Sinoduak, lana. Arauak sortu bearrak dira, dan danak lañaren bide garbia ikus dezaten, gainerakoan gorrotoa eta ezin erarnana sortzen da, azkenean eriotza. Parrokiak agortu gabe, azaldu bear du Berri Ona eta ortarako bakarrik eraikia dago. Ez beste ezertarako. Gai oneri buruz argibide nagusiak bear genituzke arkitu.

Lekuko Elizbarrutiaren zeregina

"Christus Dominus" idazkian agertzen zaizkigu Elizbarrutiko onarriak: Berri Ona, Eukaristia, Espiritu Santua eta gotzaia Jainkoaren erriarekin batean. Ortik aurrera beste zerbait jakin nai genuke. Aipatutako alderdi oietatik, aide, zer bear du Elizbarrutiak azitzeko?, da gure galdera.

Ez dugu oraindik arkitu, garbi eta argi, Batikano-ko Bartzar nagusian aurreratutako arazoetan, Elizbarrutiko bizitzaren kurpilla. Nolako sustraiak dauzkan azitzeko etzaigu ageirtu. Beste aldetik, 1974 garren urtean, gotzai ordezkarien Sinodua bildu zan Erroma-n. Gaia ezin ohea: Berri Onaren zabaikundea. Lan guzti oiek azterturik, gai bat agertzen da danez gain: Lekuko Elizbarrutiaren zeregina. Etzaigu garbi agertzen zeregin orren kurpilla, bainan ekintza orren idazki pilla irakurrita, itz guzti oien artean, mailla berexiak azaltzen zaizkigu. Oraintxe da garaia Lekuko Elizbarrutiaren Sinoduan

ori dana, astindu eta sakontzeko. Zertan bear du izan oinarritua Elizbarrutia, egitazko Eliza izateko eta garai berdinean Berri Ona zabaltzeko? Gure ustez azitze orren kurpilla, abe auetan ez arria dago: Liturgia erriaren izkuntzan, artzaiak edo elizgizonak erriarentzat eta erritik aukeratuak, bertan osatutako irakaskintza erria sinismenaren bidean ezitzeko, lagunarteko artuemanak auzoko eta Erroma-ko Elizekin, Sinodua elburu guzti oiek sendoki lortzeko.

Mailla oiek begiratu bat merezi dute. Liturgia erabat erriaren izkuntzan bear du eratua. Mailla ontan, aurrerapen eta lan ona egin da Euskalerrian. Gai oneri buruz, beste zer-txo bait esango dugu geroxeago.

Elizgizonei buruz auxa agertzen zaigu garbi: Euskalerrian euskaldun artzaiak bear genituzkela, ez bakarrik euskal izenak dituztenak. Zoritxarrez ez ditugu Elizbarruti danetan eta Euskalerriko edestian beti arkitzen. Gai oneri buruz ere geroxeago gauza asko esan nai genituzke. Gainera apaiz, artzai edo elizgizonak erriarentzat bear ditugu eratu ak, ez bakarrik aldarearentzat; erriarekin lanean dakitenak, baita erritik datoztenak eta ez arrotz aldetik.^

Bertako irakaskintza gaia dabilkigula auxa ikusten dugu: Jainkoaren Itza bertako gizabidean txertatuaz Berri Ona zabalduko dala. Eliz berexi bakoitzak bere aldetik lan ori sortu bearra du. Ortarako asko asmatu bear eta lenago egin dana ikasi bearra. Euskalerrian, len, lan aundia egin zan, bainan ori dana ez dago naiko aztertua eta sakondua. Ortarako, langille asko bear genituzte. Berri Ona zabaltzeak, txertu berri ak eskatzen ditu oraindik.

Anaiarteko artuemanekin, auxa aipatu • nai genuke: Elizbarrutiak, enda berdinean lanean ari diranak, elkarrekin eta elkartuta aitzurtu bear luketela soroa. Eliza, bat eta

zabaldua da. Batasun ori ez da besoak luzatu gabe arkitzen. Lendabizi buruari eta auzokoei iriki bearko zaizkie. Besoak zabalduaz, bidè ortik batasuna sortzen da. Aita Santuarekin eta auzoko Elizekin batean bizi bearko du.

Azken maillan, Sinodua, gure gaia dugu. Ez dago egitazko Euzbarrutirik Sinodorik gabe bizi kteenik. Sinodorik gabe ez du azi eta aurreratze jatorrik izango. Sinoduan, bakarrik ikusten bait da Eliza, kristau sendi osoaren ekintza dala. Gainera, Sinoduaren bitartez, Aita Santuak obeto jakingo luke, dauden kezka, itxaropenak, bitxiak eta ereduak. Sinodua lege bihurtu dedin, Aita Santuak baiezkoa eman bear du.

Azaldutako bost mailla auk dira, EMzbarrutiaren azitze-ko bizkarezurra. Sinoduan zillegi litzake, Elizbarrutiaren ardatzaren neurriak eta onarriak ikustea eta berriz aztertzea. Bidè ortatik oraindik, lana asko dago egiteko.

Elizbarrutia gai guzti oietaz oartzen dala, bearrezkoak ondo zaindu bear htuzke. Nere ustez, Euskalerriko Elizbarrutiei begiratuaz, gaur, danetan bearrena Sinodua dugu. Bear oneri buruz, gero lasai mintzatuko gera. Sinoduak, beste mailla denak lotzen eta indartzen ditu. Zoritxarrez, Sinodorik gabe bizi gera. Nere iritziz, orregatik gaude, argal eta erren. Zerbait naiko txarra ba da gure artean, ikusten dugula alde batetik, Batikano-ko Elizbatzarrak bearrezkoa aipatzen dula Sinodua, Elizbarrutiarentzat eta bestetik, Euskalerrian Sinodua zer dan jakin gabe bizi gerala.

Elizartzantzaren egitaraua

Len aipatu dugun bezala, Euskalerriko Elizbarrutitan ikaragarritzko nasketa izan da: bakoitza bere aldetik eta goitik argitasun gutxi. Urte askotan ez ditugu euki elkarriz-

keta jatorrik egiteko girorik, gutxiago oraindik maitasunik, gorrotoa eta zakarkeria bai ugari. Eliza, elkarte bat izan bearrean, Sinagoga arkitzen genuen, taldeak ugari eta borrokan. Danez gain, Elizaren aurretik ideologiak aurreratzen zituzten. Sinodoko giroan bidea garbitu bearra dago. Ortik bakarrik etorriko da gaiak bakantzeko aukera. Auxe dugu ekintza bikañena: lana egiteko, larrea neurritu eta garrantzi aundiko gaiak berexi. Beste askoren artean, gure arteko buruauste edo gogobizi batzuek aipatuko ditugu. Ara asmo bakanak. Norberak luza beza zerrenda.

Gai bat iruditzen zait, danen aurretik etorriko dala: Eliza eta politika. Ba da garaia talde danak elkarte batean biltzea, danen iritzia entzuteko. Artu Jainkoaren Itza, mai gainean ipini, ondoan Batikano-ko Batzar nagusiaren erabakiak eta ondotik Euskalerriko giroari begiratu.

PoHtikaren atzetik, bigarren gaia euskal gizabidea edo kultura etorriko zaigu. Kultura, azkenean, norbera bihurtu dute. Or barrenean, mailak neurritu eta ezberdindu bearko dira. Larrezabal ortan, Elizaren jokabidea, Eliz bezala Euskalerrian ikusi bearko da. Argitasunaren bearra dago. Lanik zailena, noia eroak bareni. Batzuek itsu itsuan buruan dar-maten asmoari bakarrik eusten diote. Oientzat ez dago beste goiz argirik. Sinoduaren eiburu azkena erriaren eziketa da: erein eta erein, entzun eta entzun eta gizasemeak lasaitu.

Ondotik, ikusi bear dugun gaia: Euskalerriko sendia nundik nora dabillen eta nora dijoan, Elizak nolako laguntza eskeni dezaiokeen eta nolakoa nai genuen. Eliza eta sendia, bata besteakin oso lotua ikusten dugu. Ez dut uste bata bestea gabe luzaro bizi litekenik. Eliza argaltzen dala, sendiak dana galtzen du. Elizak laguntzarik ez diola eskeintzen, gatzarik gabe geldituko da. Batikano-ko Batzar nagusia gogotik mintzatzen da sendiari buruz. Sinoduaren bearra dugu gai au sakonki ikuitzeko.

Elizartzantzaren lana noia banatu izango da, Sinoduaren beste jokabide jatorra. Gure artean, geiegi ikusi izan dugu, gar ai batean apaiz gazteak erreketako errixketan usteltzen utziak, usteltzen zartu arte. Ba ditugu onela, toki berdinetan iraun dutenak atsa galtu arte. Beste aldetik, iri nagusietan, bizi osoan, arpegi berdinak, gizentzen igarotzen zituzten urteak. Lantokiak sariak ziran eta adiskideen adiskideak beti santuak bezala artuak. Orregatik irauten zuten bizi osoan toki bikanetan boróbiltzen. Itz gutxi, arpegi illun eta las ai bizi. Apaizak etzeuden lanerako eratu ak eta genuen giroa etzan lanerako giroa. Sinoduak esan bearko du apaiz-lana ez dala sariketa edo ezurak usteltzea. Lana aipatzen dala, kaleko lanari buruz zerbait esatea zillegi zaigu. Lana gizadiak elkarteari eskeintzen dion doaia eta saria da. Ez batzuek dio tena: ondo jan, obeto bizi eta betiko oporrak itsas ondoan eskuratu. Gai oneri eskeni dezaiozun argitasuna, dana gutxi da.

Gure aldetik, beste gai batzueri eutsi nai genioke. Geroxeago atal bat eskeniko diogu, gure mina aundia dalako: euskaldunak nunai gaude, euskal apaiz eta lekaime-lekaideak ugari eta Euskalerriko Elizbarrutitik laguntza gutxi. Azterketa sakona egin bearko dute, naita naiez gai oneri buruz, Elizak bear bezala iraun nai ba du. Gai zabalegia dugu, emen danak agertzeko. Oraingoz ariaren burua aipatzen dugu bakarrik.

Sinodorik ez daukagula, oso gutxi aurreratuko ginake. Biarko Sinoduarentzat, gaurko asiera garrantzi aundikoa izango da. Gaur ez ba dugu Sinodorik, biarko izango da Euskalerriko Elizaren asiera jatorra eta bearrezkoa.

Emen aipatutako gai nagusi oientzat egitarau egokiak bear genituzke eta oiek jator bakarrik Sinoduan egin Hteke, danak alkarrekin bilduta daudela. Orrela bakarrik, geroago, jakingo da, nun dauden gauzak eta noia arkitu.

Beste aldetik, Sinoduak, parroketako bizia indartzeko, itz aldi berexiak antola bear lituzke, gai nagusi batzuei buruz età ortarako gizonak jan tzi. Askotan gizonak naiko ondo janiziak dauzkagu eta indar oiek ez daude erabilliak. Ortxen daukagu ekintza berexia, eskutik erortzen ezin duguna utzi.

IV. Korapillo nagusien azterketa

Sinoduak, berez, Elizbarrutiari dagozkion gaiak erabiliko ditu, beste gauza guztien aurretik. Alderdi oiek aipatu ditugulen.

Orain, gaur Euskalerrian arkitzen ditugun korapilloak astindu nai genituzke ta Sinoduak ukitu bearko ditunak. Gai asko eta ugari agertuko dira bazter guztitik. Banaka ikusi bearrak daude, irtenbide elizkoi jatorrak billatuz. Orixe izango da gaurko Elizak geroari eskeni dezaioekion oparirik egokiena. Erriak irabaziko du batez ere euskal kuiturak eta EUzak dagokion ekintza osatuko du.

Nere aldetik, ikusitako gaiak aipatzen asiko naiz.

Euskal liturgiaren bide berriak

Euskal liturgiaren aurreneko mailla osatua dagola, danak dakigu. Izan diteken liturgi jatorrena daukagu, Batik an o-ko Batzar nagusian jaioa. Ortxen geldituko zaigu eredu aipagarri bezala. Bainan daukagun liturgia ez da naikoa. Liturgia ez da latinezko idazkiak euskaratzea. Euskaldunok euskaldun bezala ospatu bear dugu Jainkoa, Kristoren Ituna darabil-

kigula. Lenengo maula, itzuipenari buruz eratua, betea dago. Orain aurrera joan bearra daukagu. Nola orduan sartu euskal liturgian, gure gizabidearen ezaugarri berexiak?

Bidè ortik asita ekintza batzuek aurrera eraman dira: Erri Meza, dantzak eizkizunetan eta abar. Ini gauza lotu bearra daude batean: gure egitazko oiturak, sinismena eta liturgia. Baisi bearko da euskal oitura batzuek sinismenarekin zer ikusirik ote duten edo sinismena azaltzeko aina ote diran, azkenean liturgia erabiltzeko egokiak ote diran. Lendabizi dauzkagun oiturak zerrenda luze batean ipini bearra daude, dan danak ezagutu ditzagun. Gero zerbait esan nai ote duten gaurko liturgian, Sinoduan ikusi bearra dago. Ortzen bururatzzen zaizkit oitura batzuek. Oresa-n apaiz nengoela oso ondo oraoitzen naiz nqbi Ostirala Santuari, eizkizunetan, Gurutzea sagaratzeko garaian, etxeoandreak opari bezala arroltz bana uzten zuten, neri oso ondo zetorkidana. Bainan, galdera oneri eusten diot: zerbait ba aldute ikusteko arroltz ak, Gurutzea sagaratzearekin, Ostiral Santuari?

Beste aldetik, nere aitonaren illetan, Bera-n, Premosa-ko Josepak, Ugaingorda-n asita, elizaraino, ilkutxaren atzetik joan zan, errarmi adar batekin eta otoitz garaietan ilkutxaren gainean uzten zuen. Entzuna dut Oresa-n, orain dala gutxi arte, illetan etxeo aria zeramata elizako atariraino.

Zer gorde ta zer kendu? Nere aldetik ere erriko ezaugarriak sartu nitun eizkizunetan. Pazko gabeko zuzian apaintzeko elorri adarra loretan ekartzen nuen eta bataioko urberria sagaratzeko Juaniturritik ura. Geroztik, bestea gauza asko sartu dituzte illetan, batez ere dantzak eta azkeneko ontan ezpata dantza. Tarte batzuetan ikusi dituzte illetak euskal Hturgiakin, euskaldunak etxiranentzat eta sinismengabekoentzat. Nun gaude?

Erri Mezak osatzen asterakoan, ortzen zeuden Euskalerriko eresi, txistu eta bersolariak. Opariaren garaian, gure baratzetako igali eta osto goxoak zeramazkiten. Bersolariak berriz, opari eta Jaunartze ondotik abestutzen zuten erriarekin batean. Asieran, teologia ere erabiltzen zuten, gero politika eta azkenean eztena. Orain zernai egiten da Euskalerrian eta minai. Gar aia da Sinoduaren bidez garbiketa eta argitasuna sortzeko.

Bainan, ez bakarrik ekintzak, ba ditugu itzak Elizaren iritziarekin zer gutxi ikusi bear dutenak. Erria berez ez da Eliza. Aipatu bearra dugu, "Kultura eta Kultoa" izenarekin, jaunaren Deia delako aldizkarian 1977 garren urtean, uztailan argitaratutako lana. Nunbait, erriko seme bat baitegitik ateratzerakoan itsas ertzeko iriren batean eman zioten agurra eta ondo etorria. Ori dana erriko liturgia omen. Erri osoa karrikan; batasuna, abestiak, itxaropena eta alaitasuna. Erriak opari bat ospatzen zuen kalean. Eizetan askotan ez omen dago erria, eztare ospakunde girorik, ritoa baizik. Idazki ort an ez ote ditu nastu erria eta Eliza, jaia eta Jainkoaren ospakundea? Gaur egun, izadi osatze ortik, ospakunde bat egin nai dugu, garbiketarik gabe. Berpiztu nai dugu, bainan gurutzea aztuta. Liturgiak, izadiko ontasunak, gurutzearekin batu bearko ditu, berpiztearekin zerbait ikusteko.

Kaleko liturgiak ez dute bakarrik politikarekin zerbait ikusterik. Ortzen ditugu ere jolasetako liturgiak. Ikus aurtengo ludiko baloi jolasak eta azkeneko egunean kalean gertatu dana, emen eta Italia-n. Erriaren ospakundea genuen bainan ez Elizaren liturgia.

Erriko ospakunde ortan, gainera, txosten asko daude aztertzeko: errexkeria ez da ospakundea, ez dezagula gorrotoa maitasunaren ordeztatu. Batzuen askatasuna ospatzen da eta zergatik besten eriotza aztutzen? Ori maitasuna ote?

Sinismenaren maulan, errexegi jokatzek ez du balio. Erriarekin txalo egitea ez da berez maitasuna eta gutxiago sinismena eukitzea. Nere ustez, gainera, erriaren eziketa ezin dugu lortu aide batekoari arrazoia emanaz eta besteak arin azituaz. Parra gutxi egin diteke Euskalerriko giroa ikusita. Axalkeria da dan izan erriko enparantzan egitea. Ba dakigu gazten odola errex berotzen dala, baina egizaleak eta elizgizonak burua epela bear du euki, ez beroegi, ez otzegi. Erritik aldarera oiturak igotzerakoan garbiketa latza bear lukete artu. Berpizteko gurutzetik igaro bear.

Orduan auxe da gure gaidera: Hturgian erriko oiturak erabiltzeko, zer egin bear da? Íritzi nagusi oiek, garbi Sino-duak azaldu bearko ditu. Iritziak, goi maillakoak izango dira. Ara nere asmoak gai oneri buruz.

Bat, oiturak, ehzan, sinismenaren esanaia azaltzeko izango dira.

Bi, esanai ori erri osoak errez eta garbi ulertzeko eran erabilli bearko dugu.

Ira, ezaugarriak ez dira, egunero aldatzen ibiltzeko eginak. Ezaugarriak, geiegi aidatu ezkerro, erriari iagundu bearrean, era bat nasten da.

Lau, ezaugarri oiek ez dira talde baienez eginak, elkar-tearentzat baizik.

Bost, azken itza Elizan, ez du erriak, artzaiak baizik; jakina, erriarekin bizi dan artzaia.

Euskalerriko Hturgiaosatzen aurreratzeko, bertako Elizak aztertu bear luke dagon giroa eta garai berdinean iritzi nagusiak eman, luberria urratzeko. Gainera Lekuko

Elizak, beste lurraldetan egindako ereduak ere ezagutu bearko lituzke, naiko argitasuna eukitzeko eta zabaltzeko.

Liturgiaren berritze onan, gogoan euki bear, Batikano-ko Batzar nagusian diotena, "Sacrosanctum Concilium 111-23" delako idazkian. Arazo nagusiak oroitarazten zaizkigu: egitazko bearra Ebzarentzat eta erriko egizko sustraiak.

Liturgia ez da liburu eder batzuek argitaratzeko bakarrik eta gaur gaidera bat egin dezakegu: zergatik daude ainbeste apaiz itz aldi bat euskaraz ezin dutenak egin eta zergatik iri aundietan euskal liturgiaren ezetasuna. EHgizonen aldetik oso gutxi itxaro dezakegunean, kristau soillak alkatuta eskatu bear htuzkete mezak euskaraz ugaritzea. 1977 garren urtean, euskal iri nagusien meza giroa aztertu genuen, baita 1979 garren urtean frantzezez liburu bat argitaratu, "'L'Exemple de la Liturgie en Basque, Le Centurion, Paris, pp.227-238". Ortzen ikusten da euskal liturgiaren axaleko indarra, euskaldun bezala artzen ditugun irietan; Donostia-ri begiratu. Baiona-n era bat utzia dugu; 8.000 euskaldunentzat bi Meza euskaraz. Ikus nolako giroa euki dugun; Bilbo-n 18 Meza euskaraz, 30.000 euskaldunentzat, Iruna-n berriz, 5 Meza euskaraz 11.000 euskaldunentzat, Donosti-n 26 Meza euskaraz 36.000 euskaldunentzat, Gazteiz-en 5 Meza euskaraz 10.000 euskaldunentzat. Euskaldunen elizkizunak ez daude erdal liturgiaren neurri berdinean zainduak. Garai artan, Euskalerriko EMzbarrutietan ez genuen laguntza aundirik lortu lan ori, Euskalerrri osora eratzeke. Sinodua antolatzerakoan, erri danetarako elizetara gaidera bat egin diteke: zenbat euskaldun dituzute or eta zenbat Meza euskaraz? Garai berdinean jakin diteke zenbat apaiz euskaldun dituzten. Euskalerrriko eliz askotan ez daukate euskal hturgiaren libururik. Euskalerrri barrenean, ezkontza edo bataio bat duzula, zure liburu ak beso azpian artuta joan bear duzu, erri askotan, elizetan arkitzen ez dituzulako.

Liturgiarekin gabiltzala, orduen otoitzari buruz zerbait esan nai nuke. Orduen bturgi delako liburuan, azkeneko aldean, Euskalerriko doatsuak edo santuak aipatzen zaizkigu. Nimes-ko San Honesto ikusten dugu eta ezin dugu biliatu Errioxa-ko San Millan. Liburu bat idatzi genuen euskaraz gai oneri buruz. Lenengo liburna euskaraz, Errioxa-ko San Millan-i eskeinia. Andik asita sartu zan kristau sinismena, Euskalerriko zati zabaletan, zazpi eta zortzigarren gizaldia ezkerotik. Eunka zeuden Euskalerriko Elizak Errioxa-ko San Millan-ekin lotuak. Arat aurkezten ziran ibar eta irietako lendakariak oparia eskeniaz; Araba-tik txekorrarekin joaten ziran, gizaldi askotan. San Millan bazter batean uzteakin zerbait irabazi al dugu? Ez al litzake egokia geroko gizaldiak eskuratea, gaur San Millan-i zor diogun itz ala eta sinismena? Orrela Errioxa-n ditugun zainak berrituko genituzke eta Errioxa-n euskal zainak mardulak dira. Edestian, Errioxa eta Euskalerrri osoa oso lotuak daude, batez ere San Millan-go lur eta eliza. Zerbait irabazi al dugu, San Millan aztutzeakin? Aspaldi garaietako monastegiak ditugu Euskalerriko arkaitzetan eta danak ba dute zer ikusia Errioxa-ko San Millan-ekin. Beste enda eta erriak ez lukete orrelako aukera eskutik erortzen utziko. Ango arri zar aiek, Euskalerriko kristau arri zarrekin zerbait ikusteko ba dute. Ango arri aiek gure edestiaren eta sinismenaren zainak ditugu, ain zuzen.

Gure Elizeian, liturgiaz gain beste izkuntza erabiltzen dugu, edergalluena edo artea. Jainkoaren etxea al diteken ederrena nai dugu. Urtekin, edergallu aldetik aberatsak gera.

Ugaritasunak, edergalluen jakintza goratu bearrean, gaizki ezitako aurren modura ibüh" gera: Edergallu oiek saltzen edo ezjakinen eskuetan uzten. Ortzen daukagu eredu garbia Aralar-ko San Migel-en gertatutakoakin: ludi ontako esmalte ederrenak mendi galiur batean, artzaian artean inguraturik. Orrekin naikoa esana dago: Elizan buruaren

tokian askotan anka arkitzen dugu. Edergallu lanetan ba ditugu gizon jakintsuak eta argiak baina ez dituzte artea zaintzeko deitu. Euskal elizetan edergallu bikainak Euskalerrian ijitoei saldu dizkiete, Elizbarrutietan arduradun egokiak euki ez dituztelako. EMzgizonen ezjakintasunak eta ajolagabeak usta ditu gure elizak eta gizendu ijitoak.

Edergalluak, gar ai batean, sinismena azitzen laguntzeko eginak zeuden. Ortarako neurri bat zegoen. Gizaldiekin neurri ori puskatu dugula dirudi. Ikus eliz askotan gertatzen dana. Bazterren batean Jesus-en biotz aren iduria ipintzen dute ta ondoan ikus oi dugu beste santa aundiekm inguratua. Gizon aien artean Jesus-en biotza aurtxoa dirudi. Noiz artuko ote dute Jesus, gure Apaiz Nagusia eta Jainkoaren Ordezkarri bakarra bezala? Kristoren iduria ez lukete bein ere bazter batean jarri bear, elizaren erdian baizik. Iduriak, neurri askotakoak bear dituztela eta al dan ugariena gaitzen bat aitortzen du onek. Eliz askotan gaitzak jota daude, Ba da osakia zabaltzeko gar aia, gure elizetan eta Sinoduak argibideak eman bearra. Debozio askok ez dute sinismena azitzen uzten eta kristau elkarateak lagundu bearrean, aur biurtzen dituzte. Elizak sinismenaren ezaugarri eta edergallu agertu bear lukete. Sinoduak itz egin beza.

Atal ontan liturgia aipatu dugu. Ba da gar aia gure elizetan euskaraz ere Sakramentuen berriak jasotzea. Orain dala gutxi arte sendiak toki askotan euskaraz artzen zituzten baina berri oien idazkiak etzeuden euskaraz eginak, erdaraz baizik. Alderdi ontatik ere garbitasuna bear genuke.

Bertako irakaskintzaren erroak

Nun dago Euskalerrian asmatutako sinismenaren irakaskintza? Batzuek ez dala ezer egin, esango dute. Geienak

gai oneri buruz zer egin dan ez dakite. Besteak, Elizak zuri zuri, arrotz erritik egina dakarkigula, esango dute.

Gure aldetik, bertan egindako lanak bi elburuei eutsi bearko die sustraitik. Bat, Eliz zabalak Jainkoatik jástotako Iran a eta sinismenari: sinismena ori ez dugu Euskalerrian asmatu bearrik. Orduan gure sinismena, Elizaren irakaskintzetan ondo onarritua bearko dugu euki: ortarako BibUaren itzulpen jatorraren zai gaude, erriak ulertu dezaken itzulpena, Uturgiaren itzulpenaren bide berdinetik egina. Aurreneko Bibliaren itzulpena, protestantiak egin zuten 1571 garren urtean, Naparroa-ko Joana erreginak aginduta. Lizarragak burutu zuen. Liburu ori Euskalerriko etxe danetan bear genuke euki. Bizkaieraz, Kerexetak bete du utsune ori 1976 garren urtean. Gipuzkoa aldetik, aita Apaolaza, Estibaliz-ko beneditarra ari da lanean, Ipar Euskalerrian berriz aita Etxeandi Belok-eko beneditarra eta Rober Putxulu apaiz a. Gainera euskaraz bear genituzke Elizguraso garrantzitsuen lanak, baita gogobizitzaren irakasleen ezagunenak. Oneri zenbatu bear geniozke Elizbatzarren erabaki ezagunenak, batez ere Batikano-ko Batzar nagusienak.

Eliz sinismenaren aldetik onela onarrituak gaudela, bear genuke jakin noia erabilii dituzten gai oiek Euskalerrian euskaraz, gutxinaz erabillitako gaiak jakin.

Ortik gainera, gaurko kezka eta deiak sinismena aldetik ezagutu bear genituzke ta erantzun jatorrak, ondo onarrituak gaudela, euskaraz eman.

Elizaren sinismenari eutsi, bertako zañak. ondo ezaguiuz eta gaurko euskalerriko kezkei begiratuaz, aurreratu gaitezke. Ortarako, urratsak eman bearrak daude eta Sinoduak garbitu lezake bidea.

Lana ez da z ailla; bertako gaiei eutsi eta Eliza oso?ri irikia agertu.

Euskalerriko sinismenaren erroak nolakoak diran gaur, jakin bear lirake eta gai oien izen zerrenda jaso. Orrekin argitasi n aundia artuko genuke. Erantzun jatorrak antolatzeke, Euskalerriko elizgizonen idazkiak argitasun aundia emango ligukete.

Euskalerrian, uste baino geiago idatzi da, gai oiei buruz euskaraz, bainan bilduma osoak daude b aztertu ak ganbaretan. Naparroan bakarrik bizpairu ehzetan ikusi nituen elizkizunetako itz aldi mordo ederrak, danak euskaraz, orain dala eun urte aurretik idatziak. Paper oien bidea, "Naparroa Euskal Arrobia" bburuan agertzen dut. Ba da gar aia Euskalerriko elizbarrutietan, ajola geiago izateko euskal kulturaren iturri oiekin. Noiz esnatuko ote gera? Beste toki askotan eredu ederra ematen digute. Ortzen ikusi nuen Ameriketean, Yale izeneko ikastetxe nagusiako liburutegi berrian, agirían ezarriak 15 garren gizaldiko, elizetako itzaldiak, erderaz. Rastillan eginak. Izan diteken tokirik egokienetan ipini zituzten. Gu lo zorroan. Noiz arte?

Elizirakaskintzari buruz, Batikano-ko Batzarrak ez ditunak esan Eliz osoarentzat bearezkoak diranak, aipa diteke Sinoduan ludi osearen onerako. Ara emen txostena asmo berri bat ondo lantzeko. Gure elizetan, asko aipatu da beartsua eta aberatsa. Bi itz oien esanaia sakontzea merezi luke. Gaur beartsu izena ori askoren ezpañetan entzuna dugu: lan gutxi egin, ondo jan, lasai ibilli età besten izena zikindu. Nor da egitazko beartsua? Beste aldetik ikusten ditugu aberatsak deitutakoak, beti lanean, elkartearen ona begiratuaz eta lantoki berriak eraikiaz. Zer da jainkoaren legea? Nor da egitazko beartsua eta nor aberatsa? Gaur egun, bi izen oiek zerbait esan nai ote dute edo ezer gutxi? Ez ote

Htzake obeto aipatu bear gizadiko beste bi maillak, lan asko egin gabe bizi diranak eta langilleak? Bi mailla oiei erantsia agertu bear genuke, gizarteko beste neurri berri bat: astia ezertxore egin gabe galtzen dutenak eta astia betetzen daki-tenak. Arazo guzti oiek aztertuz, gaurko gizadiari eskuratu lezaioke argia, Sinoduak.

Kristauikasbidea indartzen

Eliz asko dauzkagu Kristauikasbiderik gabe: toki batzuetan aurrak ikastetxera egunero erritik aide daramazkiteiako, beste tokitan aurkeria bezala artu dutelako.

Apaizak, kristauikasbidearen bidetan ezi bear brake. Kristauikasbidea. apaizen eliz lanetan, ekintzarik bikanena da. Ortxen xurpatzen dute aurrak sinismenaren azia. Ala diote Aita Santu eta Elizbatzarrak. Ortik aide, galera eta sinismenaren oztutzea dago. Kristauikasbiderik eman ez duen apaiz ari ez liokete parroki baten ardura eskuratu bear.

Kristauikasbidea, parroketan naiz aur txikiekin betea izan, sinismenaren mintegia dugu.

Gaur e gun, kristauikasbidea ondo eratua bear luke: taldeak adinari begiratuaz eginak. Gero sinismenaren abeak bear genituzke eraiki, adarretan gelditu gabe.

Euskaraz, eman eta artzeko aukera bear lukete izan aurrak eta gatzetxoak, Euskaljerri osoan. Erri askotan, euskaldun aurrak ezin dira gertu Jauna artzeko euskaraz. Toki askotan, lenengo jaunartzea ez dago euskaraz antolatua. Euskaldunak, Euskaljerriko elizetan arrotz ote?

Euskarazko kristauikasbidea Euskaljerrian zabaltze arren biderik egokiena, euskaldun kristau sinismenaren ezitzalleen elkarte sortzea. Lagunarte orrek zirikatuko lituzke bazter-rrak. Orrelako elkarte bat Sinoduan sortuko ba Htz indar aundiagoa izango luke gero. Euskal kristau elkarte indartsu bat gabe, ez dugu euskal Eliza jator bat izango Euskaljerrian.

Euskaljerriko eliz danetan bear lukete aurrak Jaun artzeko eta sendotzarako, euskaraz eziketa egiteko aukera. Ori ez dugun bitartean, Elizak ez ditu zaina mardulak eukiko Euskaljerrian.

Elizaren itzalean ikastola

Eüza, Euskaljerrian, euskaldun biurtzeko ikastolari gogotik eutsi bear lioke. EMzaren babesean ere zabaldu dira, bi arrazoiengatik: bat euskara zuzpertz arren eta bi, sinismena ereiteko. Aspaldi gai oneri buruz idatzi genuen itz Ierro egokia: Eliz kanpaidorrearen itzalean, ikastola. Gai au nai eta naiez, Sinoduan ikuitu bearra. Asieran, era bat garbia izan genuen eta zailla. Erriko apaiz ak lagundu zuten erriarekin batean ikastolaren asiera. Gero esku illunak sartu ziran toki askotan. Etzituzten geiago nai ikastolak, kristauak edo euskaldunak ezitzeko, iraultzailleak baizik eta auek marxisten giroan. Esku illun oiek sartu ziranean, Elizan etzegen argitasun aundirik, goiko madietan berriz ixiltasuna eta zalantza ugari.

Gai au, erabat, Sinoduan erabilli bearra dago: argitasuna agertzeko eta Elizak Eliz bezala itz egiteko. Diunpean izan dan borroka orren berriak eman bear dira, baita argirik ikusirungo esku illunak ibilli dirán lanean. Erriak egiaren eskubidea dauka.

Sinoduak ere arazo nagusiak gurasoen eskubideari buruz agertu bear Htuzke. Geiegi entzun dugu bazterretan, "aurrak erriarenak dira". Elizak kristau gurasoak babestu bear lituzke ta Batikano-ko Batzar nagusiak eman ditu bi baino argibide geiago gai sendo oneri buruz. Eziketa ez da nasketa.

Gaur eguneko Euskalerriko zalantz geiegi Elizaren aulerian onarrituak daude. Garai bateko Eliza txapelgorri genuen, gerokoa berriz, neskamearekin dantzan. Gauzak ez dira ustekabian erortzen. Orrenbeste ikastolen nasketa, borroka eta zikinkeria ez da gertatu goi mailleko ehgzizonek jakin gabe. Iritzi garbien zai eta erabaki zorrotzen billa zebiltzanak esku otzak eta itz motelak arkitu zituzten.

Gaur gainera ikastolen jokabideak agintarien aurrean, Elizaren laguntza bear dute, gauza bat aurrera eramateko: eziketa gurasoen eskubidea dala. Sinoduak ez ba du itzik egiten, berriz gurasoak itxas txori otzen ozena entzungo dute ta erbiaren irriparra. Gai oneri buruz aurkeriak utzita, Elizak, Eliz bezala jokatu bear luke, geroko kristau sendiak argitasuna eta itz ala eskubideen aldetik gartsu eta garbitasun osoz jasotze arren.

Erriz erri jakin bear litzake nolako goraberak izan dirán. Bide ortatik bakarrik irtena argitu genezake. Goitik ez ba dute lan au agintzen, betik asita egin bear litzake. Argitasun onek emango liguke neurri berrien maila. Berri oiek gabe, berriz zalantza eta ixiltasuna EHzan eta Euskalerriko etsaiak berriz errege.

Andereñoen eziketa ondo sendotzea ez da txantxetan ibiltzeko dantza. Gai ori denen artean aztertu bearra dago. Aide bat entzun, baita bestea eta Gogogurenak esaten diguna egin.

G asteen sinismenaren eziketa.

Sinoduak ere ba du zerbait ikusteko gaztekin eta Euskalerriko elizetan gertatu danekin. Toki askotan etzan borroka bakarrik, egitazko iraultza baizik. Ikus "Gazte" delako aldizkarian gertatu a. EHzbarrutiko etxetik sortzen zan. Orri oietan, Kristo baino geiago marxismo arazoak zeuden erabilhak. EHzaren sinismena erein eta zabaldu bearrean iraultzailleak osatzen zituzten. Elizako billeratako gelak, borrokaren bitartez eskuratzeraz alegintzen ziran. Gaztek apaizen aurka altxatzeko zirikatzen zituzten. Mailla ortara iristeko ere noia egin erakasten zien: ezer esan gabe, mai eta aulkiak sartzen alegindu eta apaiza aide bota eta ixildu azi. Gero bersolariak ekarri eta gazteak erriaren aide. Gauza danetarako bear zuten apaiza ura, egitazko argia etxetan ipurtargiaren orde eukitzeko, iturriko ura sukaldara sartzeko, pakea auzoan sortzeko, lantegi berriak eraikitzeko eta abar. Apaiza eskertu bearrean, akulluarekin zirikatzen eta ori dana EHzbarrutiko etxetik eraginda. Nola ulertu ori? Goimaillan berriz, danak jakin bai eta zozoen antzera sasi-tartean ixiük. Gero ikusi zan garbi jokoa. Talde aiek erabiltzen zituzten apaizak, danak marxismo batzordetan bilduak eta danak komunisten buru izateko zai.

Apaizak, orrela ibilli direla, ez da arritzekoa kristau soillak KatoHko ekintzetako billeretara joatea eta gero, esku ukabilla altxatuaz agertzea, era bat sinismen gabeko jokabidekin, oien artean lege gizonen bat, oso ezaguna. Jokabide guzti oiek garbi ikusten zituztenei goi maulan auntz oztuen antzera, eztulka artzen zitzaien.

Talde oiek ere alegindu ziran gazteen oitura garbiak zikintzen. Gazte talde n as tu ak, mutil eta neska, mendietako errixketara zeramazkiten, an eHzan billeretako geletan, AKELARRE gordin eta ezeak osatzeko. Etzuten ori toki

batean bakarrik egiten, askotan baizik; ardoa ugari eta lamia eman. Ala guztiz ere, goi maillako elizgizonek etzizkiguten begiak argitzen eta babesten: ixillik aide, gari sorora, besterik ez.

Gazteen elkarte indartsu eta sendoak utzi nai genizkion Elizari. Elburu bakarra genuen: gazteak giza jokabidetan ezi eta sinismena zuzpertz, Elizari toki bat gazteen artean eskeni. Ainbeste tokiñan ibilli ginen, ori lortu naian, Europa, Espani eta Euskalerriko maule tan. Idazlanak ere argitaratu genituen eta goi mailla aldetik etzizguten arpegira begiratzek. Gazte salila alen buru, beste batzuk jarri zituzten eta auek, talde egoki aiek atera zituzten Elizaren babestik. Nunbait Elizak ez omen bear zituen gazteak ezitzeko ekintzarik. Ikus onekin zeinen sakon zegoen zulatua gure Eüza.

Berriz ere gar aia izango da ikusteko zer dion gai oneri buruz Batikano-ko Batzar nagusiak. Argitasun egitazkoa eskeintzen digu: idazki nagusi bat eskuratu dio gazteen eziketari. Ba dugu or mamia aztertze. Sinoduak gai au eskutan artu bearko du, gainerakoan txekorraren dantza delakoan parra eraginez, inoxukerietan jarraituko dute.

Gaztedi jator bat gure elizetan eukitzea, lan gogorra eskatu zuen, baita otoitza eta naigabe naikoa. Ekaitza sortu da Elizan eta argixuria eskuratzeko, Sinoduak du itza.

Kristau sendien babesa

Gaur egun Euskalerriri begira gaudela, auxa dakusgu: indar illunak sendien aurka eta auleria eMzgizonek .aldetik. Askotan entzun dugu esaten, "Euskalerrria aldatzeko, Jainkoa, sendia eta aberria era bat zalantzan jarri bear ditugu". Alaxe gertatu zaigu; ikaragarritzko azpi lana dago sendiaren abeak desegiteko edo txikitze.

Gainera, aitortu bear dugu, ba ditu gula Euskalerrrian sendi asko kristau bezala ez nai dutenak bizi. Auek bazterreko malkorretik joan ziran.

Bainan ba daude oraindik, asko eta asko bear bezala bizitzeko, Elizari arazoak eskatzen dizkiotenak. Elizgizonak eztul joka daudela, itz aren abotsa motel, gure ustez Sinoduak itz egin bearko du. Lendabizi, nun dagon sendiaren burujabetzaren erroa, agertu bearra dago. Ofiarriak, ugari, ortxen daude Batikano-ko Batzar nagusian. Burujabetzarik gabe ez dago gizabizitzarik. Orregatik, gurasoak eHzara argitasun aundiaren billa datoz. Ezin ditugu illunpean utzi eta barau euki. Arazoak zuntioaren antzekoak bear genituzke: zuzenak, agiriñ eta gosea kentzen dutenak.

Ara ba gurasoen laguntza j atorra: aurren eziketa eta buzuja-betza. Aurak ez dira bizidun nazkagarriak, gutxiago oraindik aingeru txuriak. Eziketaren bitartez, gizon biurtuko dira. Eziketaren ezak aker utsak aldatzen dituzte. Gurasoak eziketaren aldetik eskuratuko dute aurren aurrerapena. EUzak laguntza eskeni lezaieke.

Beste gai bat argitasunaren bearrean: gazten arteko artuemanak eta gurasoak. Aurak eta gazteak, giro j atorrak azitzeko, beste lagunak artean elduko dira. Lagun elkarteak edo adiskideen taldeak sortzeak garrantzi aundia du, elburu ori burutzeko. Elkarte oietan sortzen dira, gizon emaztearen ariak eta gai onak berak argitasun berexiaren bearra du. Bakoitzak, noia bere buru ari eutsi, gar ai oietan ez da errexa, eta kristau giro jatorra asko laguntzen du. Kristau giroa aipatzeakin Elizak jakin bear luke nundik nora dijoan.

Beste gai berexia auxa dugu: gazteen etorkizuna noia antolatatu. Gazteak biarko egunerako gertutzeko ondo jantzi bearko ditugu, batez ere barrengo gogò indarrez. Ori ez da errekeriarekin edo axalkeriarekin egiten.

Gaur egun, noia sendotu sinismena sendietan? Ara ba benetako gaidera. Garai batean, Euskalerrietako sendietan ba zegoen sinismen gartsua. Zer gertatu zaigu bitartean? Orixen dago gaia, Sinoduari aztertzeke. Nork eta nundik asita nastu dira bazterrak? Azterketa sakon ori egin gabe ez dago garbiketarik, ezta ere aurrerapenik. Ezin gera beri sasikumearen jolasetan gelditu.

Beste gaia astindu bearra: gurasoak gazteen ezitzailleak biurtu. Ori egiteko, biden bat erakutsi bearra zaie. Gurasoak gazteen ardura bizkar gainera jaso bearra daukate. Ardura ori sortzeko zer eta nolako txinparta astindu bear? Elizak beintzat, Berri Onaren egarria agertu bear luke eta noia egin ori gaur egun? Batez ere elkaturik. Nola elkar ditezke, indarrak eta besoak, ez bada sinoduaren bitartez eta Sinoduaren bidetan? Sendiak eziketaren ardura agertzeko, Ebzak ere sendienganako begiramena eratu bearra du. Arri bat gainbera dijoala beste asko jauzika jartzen ditu. Sinoduak jarri dezake Lekuko Ebza, ekintza bikanetan eta lanean. Sendia babesten dula, gizatasuna osoa sendatzen eta sendotzen du.

Euskal gizabidea zuzperten

Kuñtura itza, gaur, asko entzuten dugu. Nik gizabidea deituko dut. Orixe-ren ori oso atsegin zait. Erria bizirik eukitzeko atsa bear du eta atsa dun bitartean gizabide bat sortzen du. Erriaren atsa, gizabidearen egokitasunean agertzen da.

Elizak, erriari sinismena txertatzen diola, izaera osoa zuzperten dio, batez ere, amasa bizkortzen eta ats berria ematen. Erriaren amas ori, izkuntza, eresia, egokitasuna eta ederzaletasuna dira. Sinismena azitzen dijoala, garai berdinean erriaren giz abide osoa zuzperten dijoa. Sinismenak gizonaren egokitasuna pixten eta eragiten du, baita erri osoarena.

Orduan, bertatik ikusi bearra dago, Euskalerrian zenbateraino sinismenak lagundu dion euskal gizabideari loratzen. Orregatik Elizak ezin du eskutik utzi erri baten gizabidea. Ondo ezagutu bearra du eta emaitza onen aberastasuna goi mailan altxatzen, lagundu.

Emaitza ori erri bateko giza emakume jatorrak egiten dute: auen bizitza eta ekintza da, baita erri baten jatortasuna eta lanerako doaia.

Gizabidearen zabalkundea eta irakaskintza egiteko, gauzik egokienak, gaur egun, aldizkariak, irratia eta telebista ditugu. Elizgizonak, bide berri oiek lantzen alegindu dira. Ortzen sortu zuen Aita Intza kaputxinoak egitazko aldizkari jatorra "Zeruko Argia". Baserrietan, euskal errietan eta euskal sendietan aize berria sartu nai zuen, buruak jantzi, euskal kulturari bide egokiak iriki, sinismena erein, Elizari erriaren enparantza eskuratu.

Gauza berdina esan dezakegu Loyola eta Donostia-ko erri irratiarekin. Sortu zituzten gizon oien asmoa, bat zan: Berri Ona sukalde bakoitxara eramane. Ortzen asi ziran euskal liturgia berriaren idazkiak irakurtzen. Ortzen ere asi ziran euskal elizako eresiak abesten. Irratian ikasita gero elizetan erriak etzeukan eragozpenik, errax erabiltzeko. Gaur gaidera bat egin dezakegu: ze eskutan daude aldizkari eta irratia oiek? Zeruko Argia delako aldizkariari, "Zeruko" itza kendu diote eta "Argia" utzi, bainan jakin nai genuke nundik dator kion indarra "Argi" orreri. Kaputxinoak eskutik joaten utzi zuten. Euskalerriko gotzaiak ortzen gelditu ziran danak ixilik, Ibaineta-ko lepoan elurra egin izan ba-lu bezala. Arduradun batzuek bero bero ibilli ziran bazterrak astindu naian. Gotzaiak, otzak artu ta, eta Aita Intza negar rez. Auxe dugu gure arteko giroa. Nolako eskuetan dagon Eliza esatea ez da naikoa. Sinodo jator bat bear dugu, gauzak zuzentzeko.

Irratiarekin berriz, auxe da gertatzen dana: Elizako irratia sutan, maitasunaren bearrez, ukabilla erakusten eta iraultza zabaltzen. Anaiak elkartu bearrean, bazterrak nasten eta Euskalerrria illuntzen. Irrati oien arduraduna, goi maulan dugu. Mailla ortan berriz, otza, izkuntz illuna, adiskideen berriketa. Euskalerrrian, orrelako jokabide epelekin, sinismena estaitzen dijoa eta zerua illuntzen. Gizon zuzenak, eme zai Ori noiz arte? Sinodua sortu arte.

Elizaren ekintza, bat eta garbia da: Juan Pablo II-ak maiz esaten diguna. "erriaren gizabidean eta gizonen biotzetan sinismena txertatu eta erein". Ortik jaioko da kristau gizabidea eta sinismen bizkorra. Zerbaiten bearran gaude ba gure Euskalerrrian.

Errimaillako sinismenaren sustraiak

Sinoduaren eginbearra: erri maillako sinismena noia agertzen dan ikusi. Gai au garrantzi aundikoa da; erri-sinismenaren maillak aberatsak eta ezberdinak diralako. Erri bakoitxan galdera erantzunak bear brake antola eta lana onen emaitza jakingarria izango litzake gauz askotarako.

Erri maillako sinismena, sendiko edo etxeko oituretan agertzen zaigu. Jaiotza, illetak, bizia eta eriotza ospatzen dala. Or nunbaitik sinismenaren ezaugarriak nolabait azaltzen dira.

Urteko jaietan ere oiturak ospatzen dituzte eta ospakunde oietan erriaren atsa eta gogomina, nolakoa dan ikusten da. Erriaren barrengo indarrak ere, oitura oietan neurtu liteke.

Garrantzi aundiko tokiak, santutegiak dira. Erromesak eta erromeslariak zerikusi aundia dauka Euskalerrrian erri

maillako sinismenarekin. Ibili aldi oietan erri, ib ai, elkartek ekintza berexietan barren osoa garbitzen dute ta elkartearn arnasa zuzpertzten.

Biltoki oiek, baseliz, santutegi oiek erri baten bizitzarekin zerbait ikusi bear dute. Geienetan toki oietan gertakizun aundi bat izan zan eta gertaera orrek erri baten etorkizunarekin ba zeukan ari sendoa. Gaur, len bezala, erri baten kultura edo gizabidea erromes-eliz oietan azi, zuzpertzten eta eratzen da. Erri baten biltokiak dira. Alkarikuste orrek, erriari aukera bat ematen dio: elkarteko emaitza ospatzea. Orduan, gaiak berexi eta ugari sortzen dira: sinismena, izkuntza, arbasoen ekintzak, erri baten arnasa, gazteen itxaropena, lokarri luze baten aberastasuna.

Santutegi oietara urbiltzea, erri baten eguna ospatzea da. Erri bateko kide izateko, toki berexi oietara bildu bear. Ibili aldi oien bidez, sendi baten edestia oroitzen da eta aberasten. N orberetasunaren abeak ortxen arkitzen dira eta zuzpertzten. Erria bützen dala, beti zerbait gertatzen da: arremanak, berriak, ospakundea, ikasketa, erri baten nortasuna indartzea. Ospakunde oietan erri baten emaitza nolakoa dan ikasten eta eskuratzen da. Arrotz erritik datozen semeak ere, erromestokietara biltzen dira, erri baten emaitza eta eskubideak berriz eskuratzeko. Erromestokitik erriak, goiko indarra, batasuna eta itxaropena jaso ditu, orrengatik dira ain garrantzi aundikoak erri batentzat. Elizak ezin ditu eskutik utzi. Ortxen arkitzen dira erri baten mina eta alaitasuna, gainera barren osoa berritzen da. Erri baten sinismenak ere zerikusi aundia dauka santutegi oiekin: ikus Arantzazu, Begoña, Estibaliz eta Aralar-ko San Migel eta abar. Toki oietan erriak asko ikasten du eta biotza goxatzen zaio. Etxarri-ko sendi batean, ortxen arkitu nuen eresi xorta bat, amonak bein Aralar-ko San Migel-en entzuna, orduan buruz ikasia eta geroztik danek abesten dutena. Ipui, eie, abesti ugari sortu zaizkigu gure santutegi inguruetan eta sinisme-

naren zuzpertzua. Euskalerrian, erri kulturaren iturriak ditugu.

Garai berdinean, Sinoduak erriaren oitura gordinak edo okerrak zuzendu bearke ditu. Antzinako jentillen oitura lotsagarriak edo gaurko gentillen jokabide zikinak ez daukate baimenik gure ebzetan edo kristauen jokabidetan. Ona dana, gorde ta zabaltu. Okerrak berriz kimatu eta zuzendu.

Elizgizonen izendatzea

Apaiztegietan, ango zuzendariak, buruai betetzen zien itz borobil askorekin, esanez: "Ludia zure zai dago, baita ere gizasemeak". Egi egia esan, gotzaiak zuloak betetzeko nai zituzten, bizpairu eredu ezik. Apaiz bezala n abari tu dudan minik aundienak auxek dira. Aurrena, Naparroa-ko ibai ezagun batean zan. Antxen 120 bizilagunen errixka batean arkitu nuen apaiz argia, zuzena, biotz z ab ala. A rat bidali zuten apaiz sagaratze ondotik eta zulo artan zartzen zijoan. Gizon ura an ikusterakoan biotz ak min egin zidan. Beste eredua berriz, ni apaiz bezala negoen parroki auzokoan gertatu zana da. Apaiz alaia eta jatorra zegoen. Apaiz gazte zala bertara bidali zuten. Ba zeramazkin 15 urte erreko errixka artan. Egun batean, muturka asita, arpegia gazte bateri urratu zion. Nere gaidera auxa zan: Nola iritsi ditezke ortara?

Elizgizonen izendatzea oso gaizki erabillia izan dala Elizbarrutietan ageri dago. Apaiztegia, kaskoak Berri Ona zabaltzearekin irakiten jarri eta gero zuloak betetzera joan bear, gainera apaiz asko eta asko an bertan usteltzera.

Askok eta askok apaiza arasa zalakoan zeuden. Berez lanerako deitua dago. Beste aldetik ba dira erri zaillak, oso gizaseme gogorrekin. Betiko, apaiza, arat bidaltzea, tresna bat bezala biurtzea da. Ez du eman bearra ereiten.

Gaur arte, gotzaien aldetik, lana errexa zan. Aukera ba zuten eta apaiz berriak zuloak betetzeko eta gero aietaz aztutzen dira. Ikus oi ditugu apaizak lanerako kemenik etzeukatenak, lan aundietako parroketan. Iri eta erri aundietako inguruko auzo berriak sendi gaztez beteak eta apaizik gabe. Beste aldetik, apaiz langilleak meza batekin lekaime etxe itxi batean, parra egiteko gogoa em aten zuen, giroa parregarria zalako. Ez dugu olakorik gizadi ontako lantokietan ikusi. Orregatik askoz obo apaiz asko ez ikustea. Apaizen ugaritasunarekin, agintariekin errexegi jokatzen zuten eta etzuten ikasi noia gizonak eratu Berri Ona zabaltze arren. Auxa da nere oar berexia, urte luzetan ikusia. Giro txar ortik sortu dira kezka eta gaitz latzak. Apaiz gutxiago daudela EHako nagusiek lana obeto zabaltzen dute, gainerakoan aizatzen zaizkigu. Lanerako girorik ez denean, onena askok egin dutena Ameriketa-ra edo mixioetara aide. Itz-utsen inguru an ezin du gizon zuzen eta egiazko batekin astirik galdu. Asko dakinari, geiegi jakitea txarfa dala esaten zaio eta lantokiak beteak daudela agertuaz, agurtzen dituzte eta geiegi ez dakitenei etzaie arpegira begiratzen.

Apaizak lanerako bear dira eta ez zartzen uzteko. Gero ez arritu batzuek ezertarako balio ez dutela jartzea eta besteak indarkeriaz jantziak ero gaxtoak biurtzea.

Apaizlana eratze ori ez luke izan bear gizon baten bete-bearra, talde batena baizik eta talde ortan batzuek apaiz soillak izendatuak bear lukete izan. Izendatzeko, gainera, bakoitzak jakin bear luke zenbat urterako dijoan. Geiegi txarra da. Neurri ona bost edo sei urte. Neurri ona da mailla berdinean lana egiteko eta gizon batekin eman dezakena eskeintzeko. Gero beste bateri utzi bear Htzaioke tokia. Gainerakoan, toki berdinean, gelditu ezker, apaizak ere ormak bezala zartatzen dira. Zartatzerakoan ez da, amtzekoa, erria ere nazkatzea eta egun batean arrokeriz, baten batekin

elizako iduriren bat gorotzarekin zikintzea. Gai oneri buruz, erabaki gogorrak artu bearko luke Sinoduak.

Erreketako Elizatxoak

Sinoduan beste gaia ikusi bearra: noia arnas berri bat eman mendi eta erreketako elizatxoei. Errixka geienak apaizik gabe gelditzen ari dira. Apaizak aide egiten dula, atzetik erriko gizasemeak dihoaz aldapa bera. Azkenean zarrak bakarrik gelditzen dira eta auek iltzerakoan ormak lertzen dihoaz. Gure baso eta ibaietako gauzik mingarrienak, errixka uts eta lertu oiek dira. Askotan zoragarriak ditugu: ba dute ura, lasaitasuna, aize garbia, egokitasuna eta ala ere basamortua biurtzen. Tamalgama benetan. Beste errialdetan ez da ori gertatzen. Euskalerrian bai.

Elizaren aldetik, berriz, auxe ikusten dugu: erreketako apaizak gaizki ikusiak, antxen aztuak, bainan arziprestea erri aundiren batetik igandero meza ematera datorrela izena borobiltzen dihoakio aoz ao.

Errixka oien etorkizuna eta berpiztea asmatu bearra dago Sinoduan. Ez dugu uste gizon baten lana danikan, elkarte osoarena baizik.

Apaiz askorentzat, an bizitzea, illobia arkitzea dim di. Ori gertatzen zaigu, len esan dugun bezala, gauzak gaizki eratuak daudelako.

Ba dakigu errixkak ankaz gora dihoaztela bertako gizasemeen giroa txarra dalako. Toki paketsuak izan bearrean, zekentasunaren okela biurtzen dira. Gogor dabilta elkarren artean, zugaitz bat auzoko mandoak jota lertu dulako edo

iturriko ura etxe batek besteak baino geiago jasotzen dulako. Gorri eginak j artzen dira eta azkenean elkarrekin ezin bizi. Itxaropena galtzen dute.

Erri guzti oiek ustutzen dihoazkigula zerbait oso biurria gertatzen ari zaigu. Gure ustez, ori dana zuzentzea ez da gizon baten lana. Beste aldetik, gauzak ezin dira utzi orain dihoazen bezala.

Elizak ere zerbait ikusi bearra du. Lengo garaietan, Elizak errien bizitza zabaltzen zuen, gaur beste ainbeste egin lezake. Buruauste au sakon aztertu bear litzake; ondotik gauzak arruta. Ziur nago amaika bide berri irikiko lirakela. Apaizak erri txiki batean argitasun aundia eman lezake, bide berriak etorkizunari bumz irikiaz. Orain ortarako danok mailla berdinean lana egin bear lukete. Ortarako argibide nagusiak eta lanerako egitarau jator bat bear.

Apaizen aldetik gainera, neurri tu tako urte batzuentzat etorriko brake. Orrela erritarrak jakingo lukete apaizak lanerako datoztela. Apaiz oiek parroki aundi batetik erri txiki batera datoztela, urte batzuetarako, egizko atsedena eskuratuko lukete. Urte mugatuak eta aldatzeko aukera izan ezker, apaizak ez lukete ainbesterañoko eragozpenik izango, erri txiki batean urte batzuek igarotzeko. Bainan giro berri onen neurriak Sinoduan aztertu ak eta erabakiak izan bear lukete. Erabaki jator eta zuzen batzuekin dan danak irabaziko genuke: giza elkarteak, errixka eta b aserri ak, gainera apaizak eta Elizak.

Errixkei laguntzea, apaiz danen opari bear luke izan eta ez az tu tako batzuen edo zigortuen, aspaldiko garaietan zan bezala.

Apaizgaitegiak

Azkeneko ogei urte auetan dabiltzan aizeak nolakoak dir an jakiteko ikus apaizgaitegietan dauden aldaketak. Orain dala ogei urte oraindik," mutil gazte aiek, naiz ikasleak izan, soñeko beltz luzekin jazten zituzten, binako errenketan ateratzen ziran egurastera eta ixiltasuna zuten eguneroko neurria. Gaur berriz azkena entzuna: Gipuzkoa-ko erri batean apaizgai talde batek autserre egunean, gogojardunak amaitzen zituztela, tripotxak jatera biltzen dira edantoki batera. Erria ao zabaUk gelditzen da.

Ekaitza etorrita, apaizgaitegiak bat batean ustu dira. , Berri Onak ala dio: ondarran eraikitako etxea ekaitzarekin lurrera omen dator. Nunbait apaizgaietxeak ondarran onarritu zituzten.

Gaur egun Sinoduak ikusi bearko du nun onarritu apaizen osatze berri ori. Apaizgaitegietan ibilli diran taldeak ez dute ardura naiko izan gaitzak orpotik zuzentzeko. Apaiz elkarte osoaren lana da.

Orain bearrezko gaidera askori, erantzuna eman bearra. Euskalerriko apaizgaitegietan auxe esaten ziguten: "Ludi osoaren apaizgaitegietan egokienak ementxen ditugu Euskalerrian". Asmo ori aizatu zuten ludi onen lau bazterretaraino. Ankaz gora joan ziran. 1964 garren urteko apaizgaitegiei eskenitako liburu artan garbi eta soil agertzen genuen, gure arteko eziketaren utsuneak eta akatsak. Liburu ortan ikusten zari gure apaizgaitegien auleria. Alako Elizbarrutiak, beste alako apaizgaitegiak.

Liburu txiki aren ogeigarren urtebetetzea ba datorkigula, urte muga ori ospatzeko gai orreri buruz idatzitako lan danak argitaratu nai genituzke; idatzigabeko lanak ere agertuko

ditugu. Orrela edestian jakingo da, liburu txiki aren emaitza. Neretzat gazte asko argitatutako lenengo liburua.

Geroztik apaiz uztea ugaritu zaigu. Eunka aide egin dute. - Arrigarria eta parregarria. Gaidera bat datorkit: zergatik ainbeste orni eta intxaur uts? Zergatik ainbeste arrokeri apaizgaitegietan? Orain ordainak azaldu zaizkigu.

Apaizgaitegiko giroa oso illuna izango da, apaizen artue-manak obeak izaten ez diran arte. Gainera jakin bearko da, zergatik arkitzen diran ainbeste apaiz uzte? Gaidera orren erantzuna euki arte, apaizgaitegiko etorkizuna oso illun geldituko da. Jakin bearko da zergatik ziran ain apaizgai jatorrak eta zintzoak eta zergatik gero dan dana lertu eta illundu dan. Ori jakin gabe ez dago aurrerapenik, ezta ere itxaropenik. Apaiza zergatik erabat ustutzen dan, jakin nai genukean. Noizko erantzunak?

Apaizgaitegiak bete beterik lertzen zeudela, ez genuen ajola aundirik nabaritzen elizgizon nagusien aldetik. Etziztaizkien geiegi kostatzen. Askok senditik biltzen zuten bear zana ordaintzeko, besteak kristau soil eskuetatik artzen saiatzen ziran. Norberea bakoitxak bere aldetik egin bear. Elizak, gazte ugari eta dirua jasotzen zuen. Bainan ezin aztu, norberaren patrikatik ateratzen ez duanak, gero ez dio ajolik ematen. Nere ustez, apaizgai eta apaizen begirune zabala eukitze arren, EUzak beretik ordaindu bear luke. Orrela geiago eta obeto begiratuko eta zainduko Utuzke apaizgai ak. Ortarako administrazio on bat bear. Ipar Ameriketako goimaillako ikastetxetan gero eta dim geiago erabiltzen dute; bear bezala biltzen eta eratzen dakitelako. Elizan, gauzak geiegi etzaizkionean kostatzen, ez da geiegi arduratzen.

Zertarako ziran ikastetxe guzti aiek? Etzekiten gero sinismen ura aurtxoei eskuratzen. Apaizgaitegietan daudela

gazteak, parroketan alegindu bear lirake eginkizun jatorretan. Ikastetxean geroko prestatzen zituzten gazteak eta orduan ikasten bakarrik eukitzen. Apaizgaitegian asita begiak iriki bear zaizkie irixtadak nungo koxkatik datozen jakiteko: gertatu dana aztertu eta erne jaso eta ibilli.

Gero Elizaren sinismenari euste orrek zorrotz jokatzeko erakutsi bearko die eta garai berdinean erriko kulturari begiratzen. Otoitz giro sendoa erein bearko dute, baita ere gurutzaren bearra agertu, barrenaz zearo garbitzen ikasteko.

Elizartzantza aldetik, eresi ikastaldeak oso garrantzi aundikoak deritzaizkit. Kristau elkarteak asko abestu bear du, gure erriak pozik abesten dutako. Apaiz berriak danak eresi tresnen bat erabiltzen jakin bear lukete. .

Gure ustez, Batikano-ko Batzar nagusiak dion bezala apaiztu aurretik, diakonu lanetan ekin bear lukete apaizgaiak. Diakonu izate orrek asko erakutsiko liekete Eliza-ko eginkizunetan.

Apaizgaitegiko giro berria Eliza osoaren atsarekin lotua dago. Orregatik Sinoduak korapiUo asko lotu eta askatu litzake. Izadia, gurutzea, berpiztea eta Gogogurenaren agertze gertaera oietan dago erantzun osoa. Zarra eta berri, bat egiten dute. Zerua eta erria elkartzen dizkigute: ariaren lokarriak, gurutzea eta erria dira.

Lekaimeak bakantzen

Lekaimeak ere aipatu nai ditut. Elizak lekaimeen ikaragarritzko bearra dauka. Bum, beso eta anakak eskeintzen dizkiote Elizari, amaika betebearretan: gaxotegiak, ikastetxeak, otoitz tokiak eta abar.

Zenbat neska jator dijoazkigu lekeimeetxetara Jainkoaren deia, jator eta zintzo entzun dutelako. Lekaime oien asmoa auxe da: Jainkoakin lokarriak sendotu eta Elizari lagundu.

Lekaime elkarteak zuzpertzekin Elizak gogotik irabazten du. Gaur berriz, ikaragarritzko zalantzak eta zalapartak ikusi ditugu. Lekaimeen artean, zer gertatzen dan ikusteko, ardezagun eredu bakarra.

Ortxen genuen lekaime talde jatorra, "Misioneras Seculares" izenekoa. Rufino Aldabalde apaizak sortu zuen 1939 urteko abenduaren 3-an. Elbum garbia auxe zuten: emakumeak kristau aldetik ezi, neska langillekin eta goimailako ikastetxetan lan egin, arrotz-erriko neskeri lagundu. 1950 garren urtean asi ziran ezagunak izaten. Ogei urte bum, Espaini-n bakarrik, ba zituzten 17 etxe gogojardunetarako. Zuriz jazten asi ziran, zatar bat buman zeramatela. Euskalerriko uso txuriak deitzen zituzten. Ikasketa sakonak zeuzkaten, teologi eta gogobarrengo bizitza aldetik. Eunka neska zijoazkien urterò bizi giro ortan jarraitze arren. Gero jantziak aldatzen asi ziran, geroxeago sakab anätzen eta azkenean ba-koitza bere aldetik. Azkeneko berria, aide ta anka eunka. Etxeak ixten erruz.

Euskalerriko neska gazte jatorrenak zijoazkien lekaidetxe ura, era bat itzalean gelditzu zan, ixilik. Aide egindako oietatik asko bumtik nekatuak, batzuek nastuak, beste asko nazkatuak.

Orrelako eredu garbia dugula, ez al luke Elizak argitasunik atera bear danak berriaren jakiri gañean egoteko eta gertatu dañaren sustraiak ezagutzeko. Askok irabaziko genuke orrekin. Merezi luke lan ori norbaiteri agintzea: zergatik zijoazen ainbeste neska, zergatik aide egin zuten eta zergatik ditugun oietatik asko erabat nastuak? Lan ori bear bearrezkoa

dugu. Sinoduak agin du lezake. Edo apoaren antzera gelditu bear al dugu, ez aurrera, ez atzera?

Lekaimeen Jainkoaren deia ez da eperraren txistua eta gertatutakoak aztertu bear genituzke etorkizunari buruz. Gainera Eliz an zer gertatzen dan jakin bear genuke. Berriak ezkutuan eukitzeakin ez dugu ezer irabazten, ez gaur, gutxiago biar.

Elizaren aide lekaimeak ainbat, oso gutxi egin dute. Lekaimeen giroa garbitu eta sendotu bearra dago. Bainan lekaime gabeko Elizarik ez dugu ikusten. Nolako azia auke-ratu eta noia erein jakin bear.

Monastegi eta Elizbarrutia

Zerikusi aundia daukate Monastegiak Elizbarrutiekin: lekaideak otoitz giroa zuzperten dute, baita jakintzaren adarrak. Otoitza eta Elizaren kultura monastegietan eratzen dira eta biyen bearra daukagu Elizbarrutietan.

Bota dezagun begiratu bat Euskalerrian gertatzen ari zaigunari. Ikus dezagun gutxinaz ini monastegietan zenbat eman eta aberastu dieuten. Bellok-ek euskal liturgia egitan goi m a g a m o j a s o d f i ^ t s a e t , a b e s t i a k d i r a d e r à urte osoan taldeak datozkie otoitz giroa bilia.

Lazkaok berriz, Jaunaren Deia delako aldizkariarekin euskal liturgiaren aztarnak aztertzen naikoa lagundu du. Euskalerriko kulturari ere bultzada aundia eman dio udarako ikasaldietan, eunka ikasie datozkie.

Estibalitz-eri esker aurreneko urratsak euskal kulturari buruz Àraba-n eman ziran. Otoitz giroa dala eta, Espaini osotik bildu dira gazteak Araba-ko santutegira.

Lan ori aztertzeke garaia datorkigu. Bellok-en Frantzi-ko gizasemeekin lan asko egiten dute eta ez naikoa euskaldu-nekin. Bert ara joaterakoan frantzez giroak itotzen zaitu. I.azkao-n erri kultura aldetik eginaletan dabiltz, bainan mailla berdinean otoitz giro aldetik ekintza geiago bear litzake. Estibalitz-en berriz, otoitz giroko astea Espani osoan kan-paiak deitu dituzte eta nere ustez ezkila Euskalerrri z ab alean jo bear zitekeen. Euskalerriko parroketan bear brake zabaìdu egun oien deia eta ziur nago gizaseme asko bilduko lirakeia.

Sinoduak azter dezake Elizbarruti eta monastegi arteko aria. Lekaideak toki berexia dute Elizbarrutietan eta Euska-lerrian. Orain ikusi bear zer eman dezake ten. Gure aldetik zer itxaro dugu? Gai oneri buruz askotan mintzatu naiz Aita Mauro Abadearekin. Nere ustez, bi alderdi landu bear lirake Euskalerriko monastegietan. Bata bestea bezin bearra. Aide batetik ondo ikusiko liteke euskal espiritualidadeari buruz ikasketak, aste bat edo amar egun irauten dutela. Garai berdinean gure erriko kulturaren gaiak erabilli bear lirake, ikàstaroak eratuaz ortarako. Ikastaro auek gai berexie-kin jantziak ikusten ditut, oso irakaskintza berexiekin, beste tokitan erabiltzen ez dituztenak.

Orrela Monastegiak gure erriaren ezitzearekin lotuak izango brake eta Euskalerriko erakundearen abeak. Lekaideak ikusiko lukete bertaük bertara, etxe oien bearra eta indarra. Elizbarruti aldetik berriz begiratuko lituzke eredu eta giar bezala. Sinismena eta jakintza batutzen ba dute lan gogprra.

Atzerriko euskaldunak

Euskalerriak, bere DIASPORA dauka. Aspalditik euskal-dunen jarioa beidurgarria da. Millaka eta millaka euskaldunak zijozkigun Ameriketara. Ipar Euskalerrian bakarrik, 1900

urtetik 1960 urtera, 90.000 euskaldunak, aide joan zitzaizkigun. Naparroan bertan, 1900-1950 urtetan, 113.000 gizasemeak aide joan ziran. Ikaragarritzko jarioa. Euskalerriko anaiarteko gudan beste 200.000 aberria utzi zuten. Argentina, Venezuela, Mexiko izan ziran euskaldunak bildu ziran lurralde berriak. Ipar Ameriketara, berriz, Nevada eta Idaho Estaduetan ba ditugu beste 20.000 euskaldunak an bizitzen. Arrotzegi auetako euskaldunen semeak, zenbait tokitan euskara gorde dute. Beti oroituko naiz, noia orain dala ogeita amar urte Erro-ko ibarran ikusi nituen Ameriketako euskaldunak beren artean euskaraz mintzatzen eta bertako semekin ezin itzik egin, erderaz etzekitelako.

Zenbat euskaldun ere joan ziran, azkeneko gizaldian, Terranova delako ugarte bazterretara. Izen euskaldun asko daude ango itxas alderdietan. Kartista gudak zirela ere gazte asko joan zitzaizkigun Ameriketara; jario gaitza.

Irlanda delako lurraldeak ere ikaragarritzko jarioa izan zuen, baina erriko semeak zijoazten tokira, arat laguntzen zituzten irlandés apaizak. Luberritara iristen zirala eliz eta ikastetxe berriak irikitzen zitzaizkien.

Euskaldunekin, apaiz gutxi joan ziran. Zenbaitek utsune ori nabaritzen zuten. Aita Garikoitzek, Betarramatar lekai-deak sortu zituen eta euskaldunak laguntzera erabaki zuen, batez ere Argentina-n. Bellok-eko lekaideak ere Ipar Ameriketara euskaldunak biltzen ziran toki berexian, lekaidetxea eraikitzea erabaki zuten. Asmatu eta bete. Joan ziran eta aurreneko elizkizun batean bota zuten itzaldiak mina eman zien ango euskaldunei eta etzitzaizkien geiago azaldu. Itzleriak auxa zion: "Aberritik ain urrati etorri zerate eta elkarrekin zaudetela batzuek besten aurka solasean zebiltzate. Alkartu zaitezte eta eskua eman". Euskaldunik gäbe gelditu ziralako, lekaide aiek anka egin zuten eta beste norabait jo zuten.

Bein, Jon Onatibia eta ni, 1979 garren urteko udaran, Nueva York-ko bburutegiaren atzeko lorategian bildu ginaia, solasean esan nion orain aipatu tako gertaera ori bera eta era bat asarretu zitzaidan eta auxa zion "Lekaide aiek etzeukaten orrela itz egin bearrik euskaldunei. Zeramaten bizitza ori ez dakite zeinen zailla den. Urteak, bakarrik, irauten dute elkartzean batez bestea zirikatzen, maite dute. Ez dakizu zeinen zailla den mendi txar aietan bizitzea. Ba dira, ezinik bizi, beren buruak kentzen dutenak".

Egia auxa da: Euskalerriko Elizak ez ditula asko lagundu, arrotzerriera joandako semeak. Ipar Ameriketara, uste baino geiago proiestanteak dira. Urbillan zeukaten elizara biltzen ziran eta aiek protestanteak izaki. Canada-ko apaiz batek, auxa agertu ziran: Terranova delako ugartearen euskaldun asko dituzu protestanteak "Nunbait joan dan gizaldian etorri ziran. Beren izkuntzako apaizik etzeukaten, biztanle geienak pretestanteak ziran eta protestante elizetara biltzea erabaki zuten.

Beste aldetik, arrotzerrietara Euskalerririak millaka lekaide lekaime bidali ditu arrotzekin lana egitera eta aiek sinismenerako bidera biltzera eta bertako semeak era bat aztuak. Garai berdinean, berrogei gotzai arrotzerrian artzantzan. Euskalerriko gotzaiak noiz joan zaizkio* arrotzerriko euskaldunei agurtzera? Zergatik ote gera ain gogorak etxekeekin? Nik ezin dutena ulertu auxa da: "Artaldeia ikusten dugula beti artzaiakin dijoa. Ez dut oraindik artzairik gabeko artalderik ikusi". Elizan berriz, auxa da gertatzen dana, gutxinaz Euskalerrian: artzaia emen eta artaldeia an. Ori dana aipatzeakin oartuko gera zergatik gai onek ainbeste duen ikusteko Sinoduarekin. Berez Sinoduak erabakiak artu bearko lituzke euskaldun Diasporari laguntzeko. Gainerakoan oso gutxi baiioko du gure sinismenak. Erroma-tik, 1978 garren urtean etorritako berriak, auxa bera dio: "aide egiten duten endak

izkuntza berdineko apaizen bearra dute". Ori dana eiitzutcn dugula ezin gera lo zorroan gelditu Euskalerrian.

Azkeneko 60 urtetan, sartaldeko Ipar Ameriketako gotzaiak Euskalerrira, laguntza billa, deika zebiltzen, ango euskaldunen elizartzantzarako. Pixar batzuek bildu zituzten.

Aita Iratzeder-ek dion bezala, "atzerrira dijoazen euskaldunak emengo barreneko muina aberatsa dar am ate, argitasunik bizkorrena". Gainera naiz atzerrian bizi euskaldunaren biotza ez du inork itzaltzen. Aita Sauveur Candau, naiz urruti bizi, ala izendatzen zituen eskutitzak, "Japon-go euskalduna .

Euskaldunak, askotan afaltzeko beste euskaldun baten bearra du eta afaltzen asten dala, beste euskaldun guztiak azten ditu. Gure gaitzen osakia SINODUAK asmatu bearko du.

Eiiznagusien esana

Egia bat da: Elizbarrutietara urbiltzerakoan, askotan etxe aundi oiek, illobi otz batzuen antza dutela. Ikusten dugunak ez digu smisterà laguntzen: illuntasuna, autsa, otza, zikinke-ria ugari. Izugarrizko itxura, urrundik eta bertara urbiltzera-koan, gauzak ankaz gora. Berriz etortzeko gogoa kentzen dizute. Toki askotako gotzaiak nun ote dituzte begiak? Egia esan, ez da gotzaiaren betebear bakarra, Elizbarruti osoarena baizik. Orregatik gai oneri buruz Sinoduak itz egin bear hike.

Beste egia auxa da: Elizbarruti danetan dauzkagun eiiznagusi eta eliz soil iheresgarri oiek ikusita, ortxen ager- tzen digute Elizbarruti oietako jokabide osoa eta tankera.

Askotan eliz oiek garran tzi geiegi daukaie: martirien illobiak, edestiaren iturriak, edergalñuen kutxa berexiak. Azaltzen zaiguna berriz askotan, negargarria. Bein orrelako antzin garaiko ebz batera urbildu ginan eta izan ditekene edergallu ederrenak, txori zikinez beteak zeuden eta antxen zebiltzan barrenean usoak egatzez. Aurreneko gizaldiak bitxiak eta sinismena utzi zien. Gaur berriz, edergallu oiek ostutzen edo saltzen eta elizgizonak irriparez arrituta.

Orrelako tokiak beste batzuek izango ba-lituzte zer egingo lukete? Eta guk, kristauok ezin al dugu beste zerbait? Auxa da gure gaidera jatorra.

Gauzak noia gordetzen ditugula ikusita, apaizak Eliz ari gibela eman diogula, dirudi.

Ebz oietan, lendabizi, otoitz giro berexia euki bear genuke. Berri Onaren irakusketak eta eresi bikaina, bazterrak berriz, garbirik euki bear genituzke.

Gero edergallu oien esanaia azaldu bear litzake. Ebz baten asierak, gizonen lan berexiak eta izandako edo daukan itzak azalduaz. Eliz batzuetan erakundea z ab ala da eta ez dute inun agertzen. Eunka mixiolari dauzkate ludi onen lau muturretan eta ez dituzte erakusten. Ori galera eta ori esker- txarrà!

Toki oietan ere zergatik ez azaldu Elizbarrutian egiten diran ikastaldiak, gogoa esnatzeko edo bestei berria emateko.

Edergalluz betea eliza izaki eta argazki on bat ezin etxera eramane, ormak apaintzeko eta sinismena egunero eusteko edo begiak goxatzeko.

Ainbeste Jainkoaren doaiak an bilduta euki eta ezin bestei eskuratu, gaurko gizonei, edergallu oien esanaia. Orrelako katedralak euki eta itzik ez etika eta estetika, bi itz jakintsu oien lokarria eta esanaia agertu az.

Eliz batzuek, zergatik daukate ain itxura txarra: otoitz giro jatorra izan bearrean, gizon batzuen orrua akerraren antzekoa. Ori illuntasuna gure eHz eder askotan ikusten duguna! Jainkoaren etxean batzuetan, bele ta zapo zarren aurrean gaudela, dirudi. Bai, Sinoduak argitasuna bota bear luke. Etika eta Estetika itzen artean dagon lokarria bikaina azaïdu bear luke. Esanai ori galtzen dugula, sinismena otz otza gelditzen da. Joandako gizaldietan, ainbesteko lanak egin, gaur egun ajolagabe batzuen eskutan danak ondatzen.

Ba dakit nere itz auek emen lerrotan idatzirik ikusita oso itsusiak idurituko zaizkietela batzuei, bainan ori dana egia dala jakiteko, iriki begiak eta bazterretera begiratu. Bai elizbarruti bateko giroa eliznagusi berexi oietan ikusten duzute. Edergallu oiek, tresna zamatuen antzera ikustera-koan, ba dakigu ardura gutxi dagola eta sinismena maïlla berdinean joango dala.

Eliznagusi oiek, alaxe ikusten ditut: Eliz baten sinismena azaltzen dutela, baita Jainkoak emandako doaiak età erri baten egindako lañaren trebetasuna. EH z oien inguruan ikastetxeak baita teologiazko irakastaldiak, eresialdi berexiak, hburutegi egokiak (bibboteca eta artxiboak) eta irakurtzeko toki erosoak bear Utuzteke. Gizon berexiak età ondo jantziak bear genituzke or ikusi, lan ori aurrera eramateko.

Len, aspaldiko garaietan, eliznagusi inguruan Sinoduaren etxea eraikitzen zuten. Orrelako etxe bat ikusteko gogoakin, Sens delako irira, Frantzi-an, joan nintzan. Etxea bai egokia, leio luze Hrainak eta barrena gela bakarra z ab ala, baina dan

dana arriz betea zegoen. Antxen negar egin nuen. Antxen ere ikusi mien nolako esku e tan eroriak dauden Elizaren jokabide la etorkizuna. Elizan ba dago zeregina, bazterretan. Txarrena auxe da: lana egin nai dunari ez diotela uzten geiegitan.

Eliz diruaren erakundea

Elizak diru bearra du, gutxinaz zokoetako autsa garbitzen dabüízenei ordaintzeko. Zerekin eutsi ikastetxeak, gaxotegiak eta lur jota daudenak?

Diruaren erakundea, Elizbarrutian, oso garrantzi aundiko gauza da eta zailla gizon baten eskuetan uztea. Bear bezala jantzitako gizonak bear brake ortarako. Dima erabiltzen eta ditun goraberen berriak ez litzake euki gizon bakarrek, bitan baino geiago era bat gal du a arkituko ütza.

Egokia aipatzeko eta jakiteko, Kalagurri-ko gotzaiari, On Fidel Garzia-ri gertatutakoa. EUzgizon au oso egokia genuen eta gainera argia. Anaiarteko guda aurretik Errioxa-ko gotzaia genuen. Era bat aintzina garaiko Eüzbarmti zar ortan dim asko zuten bildua, illen aide mezak emateko. Espainian giro arront txarra zegoela, atzerrira eramatea erabaki zuen, batez ere Londres eta Suiza-ra. Orduan ludiko guda sortzen da. Ez aurrera eta ez atzera, mugak itxiak daude. Gauzak baretzen diranean, txoferra arruta berebillez Baztan-era dijoa. Ango mendi mutillak muga igarotzen laguntzen dute. Mugan beste aldetik dim aren ordahak eskuratzen ditu. Onuntz etortzeko berriz txoferrak ez daki zer dab illen gotzaia età arri tu ta gelditzen da. Zerbait esaten du Logroño-n eta ango falangistak gotzaiaren etsaiak, ortxen ästen dira esaten, emakume bat ote dun gotzaiak beste aldean. Gainerakoan zertarako orrelako ezkutu ezinegonak? Asmo biur oiekin, Erroma-n indar eginez, gotzaitzaz kentzen dute. Dana dala, itz txarre-

kin kalte aundiena egin zioten gizon jator oneri, Bainan gure ustez etzan gotzai baten lana onela mugatik aide ibiltzea. Arrotz dirua edo arribitxiak zekarzkiela, dan dana gabako lana zan eta ez egokia orrelako elizgizon batentzat.

Ori dana gertatzen zaigu, diruaren erakundea EHzan erabiltzen ez dakigulako. Batikano-ko Batzar nagusiak garbi esaten du diruaren erakundea kristau jakintsuak eta ortarako jantziak direnak deitzea. Dirua ezin da esku batean utzi, askoren eskutan egotea onena.

Gainera, dima ondo eratu a dagonean, kristau ak geiago ematen dute eta bearrak berdintzen saiatzen dira. Ez dago dirua biltzeko bide obegorik. Ezin dana egin: dirua eskatu, diruaren bearra bazterretan zabaldu eta bildutakoan inori berririk ez eman.

Ezkutuan utzitako diruak buruauste gogorrak sortzen ditu. Giro ortan ez da arritzekoa, egun batean jakitea errortor, il dala eta sukaldariari ainbeste mUlaka txakur aundi uztea. Orrelakoak eta bestelakoak entzunak ditugu. Sinoduak itz egin beza ontaz, bein eta garbi.

Euskalerriko Gotzaien Batzordea

Ba dakigu, gotzaien lana ez dala gurea, bainan gauza askotarako erriaren babesa bear dute. Beste aldetik, gotzaien erabakiak eta urratsak erriaren aurrerapenaren aide zerikusi aundia du. Orregatik erriak eska dezake Euskalerriko gotzaiei elkarrekin biltzea.

Euskalerriko gotzaiak elkarrekin biltzea, ikaragarritzko lan z ailla izan da. Egoaldekoak asi dira eikartzen, bainan danek batean ikustea kukuaren kabiaren antza du.

Ortxen zegoen aukera ezin ohea, euskal Hurgiarene gaia sortu zanean eta ikusi dugu zeinen z ailla izan zan, danok elkartzea. Bertan bizi, gai berdinak euki eta ezin bildu.

Eredu bezala, ortxen dugu, Enroman gertatutakoa, Batikano-ko Batzar nagusia aurrera zijoala eta Hurgiarene gaia sartu zala. Etxegarai eta Onatibia apaizak, biyek bertan zeuden eta eginalak ekin zituzten Donosti-ko eta Baiona-ko gotzaiak elkartzeko. Bat bestearen aurrean zegola, itz. auek atera zitzaizkien: "Ego sum episcopus Baionensis. Ego sum episcopus S aneti Sebastiani". Ori esan da, anka. Erria berriz, marraka.

Beste aldetik ezin ditugu begiak itxita euki. Gero eta geiago euskalki ezberdineko euskaldunak elkar biltzen dira. Era askotako billerak ditugu. Salerosleak, ortxen dabüzkigu Bilbo, Iruna, Bayona-n. Izkuntzari buruz lanean dabiltzanak, Ipar eta Egoaldian biltzen zaizkigu. Arrasate-ko lanerako elkarteak Baiona-n maiz ditugu. Muga bi aldeko erriak arreman egokiak dituzte. Ikus Sara (Lapurdi) Bera-ko iriarekin (Naparroan), Garazi-Lizarra, Xiberoa Erronkari-kin eta abar. Euskalerriko gizasemeak eikartzen direla ez dugu ikusten zergatik ez luketen Euskalerriko gotzaiak bildu bear. Naparroa eta Errioxa lurraldeko gizaseme erdiak ortxen ditugu bizitzen Euskalerriko itxas baztarrean. Donosti eta Bilbo-ko sendiak maiz joaten zaizkigu Errioxa eta Naparroa aidera. Gizon oien gotzaiak, zergatik ez dute elkarrekin bildu bear? Gutxinaz artaldea obeto ezagutzeko eta zaintzeko.

Gotzaien billera ori eHartzantzak eskatzen du oiuka. Gure ustez, Sinoduak gai au erabiltzeak oiartzun zabala artuko luke eHgzizonen artean. Berexiki aipatzen ditu gotzaien billera oiek Batikano-ko Batzar nagusiak. Garaia da erantzun jator bat emateko eta Euskalerrientzat ikaragarritzko buitzada izango Utzake.

Gure Euskal elizb arra tier ako EHz-lanari buruz mintzatzerakoan beldur naiz, alderdi illunak geitxo ote ditu dan agertu. Bainan argi gelditu bedi nere elburu bakarra au izan dala: Sinodu batek gure erritarren bizitzari nolako argi eta indarra ekarriko lioken adieraztea. Eta ez nuke lan au, apostolutza lanean gaurko gure giro berriari begira eman diran urrats berriak goraipatu gabe. Gure artean asia da zerbait era-berritzen. Baiña era-berritze ori bertan itota geldi ez dedin, eta igali egokiak eman ditzan, bein eta berriz esango nuke, "bearrezkoa dugu Sinodua".

Azi berri onen sustraia ikusten ditugu bide egoki bat arkitu naian. Gipuzkoan adibidez, Zestuan urterò biltzen asiak ditugu errigizon, apaiz eta gotzaia gai berdinen aurrean, zerbait jator egin naian (1980 garag. 27: 159 kide; kristau-ikasbide, Hturgi, ogibanaketa eta abar gaiak erabilbaz. 1981 garag. 26: 163 kide; Berri Ona eratzea gaia erabilüaz. 1982 urtean, parrokiak eraberritzea).

Euskalerriko maulan, erlijiosoak urterò biltzen aleginízen dira, gaur arte Billera oien asierak (1972) garrantzi aundia dute eta aipatzen ditut Euskal Liturgiari buruzko nere üburuan (L'Example de la Liturgie en basque, Centurion, Paris 1979, pp. 212 ss.).

Arzipresten maulan ere bizpauru billera egin dira.

Euskalerriko Elizbarrutietako Mturgi idazkaritzak jarraitzen dute lanean "Liturgi eta Pastoral lagungarriak" gaiak lantzen dituztela.

Egoaldeko Euskalerrian, gotzai eta Bikario zaindariak ere Loyolan 1978 garren urtean asita biltzen dira eta idazki nagusiak argitaratzen dituzte (1980 urtean, Gaztekin elkarizketan. 1982 urtean, Garizuma kristauaren jarrera gaur egungo krisialdiaren aurrean).

Naita edo ustekabeen, urrats guzti oiek Sinoduaren bideak atontzen dijoaz.

V. Euskalerriko Sinodua

Euskalerriko Sinodua, buruan, argi euki bear dugun eginkizuna da euskal danontzat. Eliza, Euskalerrian, euskalduna izan dedin, Sinodu bat bildu bearra dago. Eliza Euskalerrian elkartu bearra daukagu eta ori Sinoduak egin dezake. Sinoduak bakarrik astindu ditzazke bazterrak. Eüza, Euskalerri osoan zuzpertz arren eta aztertuko ütuzke gai zailenak eta zorrotzenak: Eüzbarrutien ugaritzea, euskaldun gotzaiak eta Euskalerriko sinistedunak elkarrekin lanean jarri.

Euskalerria serbitzeko Eliza

Elizak, Euskalerri osoarekin zer ikusia du: Euskalerriko kezak elkarrekin aztertu eta etorkizuna jator bat antolatu. Elkartze orrek elburu bat bakarra du Euskalerri osoan, sinismena zuzpertzeta.

Euskalerriko Eüza ezin diteke sakabanatua gelditu. Bakoitza bere aldetik jarraitu ezker, zaila da Euskalerriko giroa eta etorkizuna argitzea.

Pobtika aldetik, autapen edo instituzio berriak ari zaizkigu sortzen, Euskalerrri osoarentzat: agintarien batzordea, erriaren batzarrak eta alderdiak, izkuntza eta ekonomiaren ekintzak eta abar. Elizaren aldetik ez dugu ezerrez. EHza ere batua eta Euskalerrriari begira agertu bearke du. Sinoduak Euskalerrriko erria bildu, alkatu, indartu eta lanean jarri lezake. Orregatik dugu Euskalerrriko Sinoduaren bearra.

Sinoduak, alderdi jator bat azaldu dezake, euskaldunen batasuna eta Euskalerrriari laguntzeko asmo berriak eta azterketa sakon bat egiteko kementa, garai berdinean eskubide bidezkoak eskatu ditzazke, batez ere Euskalerrriko Elizaren sakabanatzea atzerakada aundi bat dala, agertuaz, baita parregarria.

Zer ikusten dugu tamalgarria Euskalerrrian? Batez ere Elizbarrutiak, gutxinaz bi alderdietara begira daudela. Bilbo eta Gazteizko Elizbarruti soillak, Burgos-ko Eliznagusiarekin batuak daude. Donostiko EUzbarrutia berriz, Iruna-koakin elkartu dute. Orduan berez, ortxen daukagu naste berraste gizamaillean: iru euskalkiak batuak daude ta Elizaren aldetik, era bat zatituta. Naita sakabanatu zituzten Euskalerrriko Elizbarrutiak, Euskal nortasun berexia ez azaltze arren. Ori lortu zuten, Eliza saldu eta erosten dutenak. Gaur pobtika aldetik iru euskalkiak batuak ditugu eta Eliza sakabanatua. Nola leike ori?

Euskalerrriko iru Elizbarrutiak, batu bear Htuzkete derri-gorrez: Gazteiz, Bilbo eta Donosti. Gazteiz eta Bilbo gutxi daukate ikustekorik Burgos-ko EHzbarrutiarekin. Sinoduak, indar aundia eman lezaioke asmo oneri: Euskalerrriko Elizbarrutiak Iruna-koakin elkartu. Nere aldetik ez daukat eragozpenik Errioxa eta Jaka-ko Elizak ere elkarte ortan sartzea. Aintzinako gizaldirik asita gaur arte, lurraide oietako gizasemeak elkarrekin asko ikusi bear dute.

Gaurkoz, Baiona-ko EUzbarrutia, Euskalerrriarekin, erabat biltzea zailla izango da, baina Sinoduan asmo berri asko agertu litezke, gutxinaz bat argi eta garbia: Euskalerrriko Sinodora Baiona-ko anaiak deitzea. Gogotik etorriko brake eta ortxen sortuko litezke lokarri berriak eta indartsuak. Eredu eder bat emango genuke, nortasun berexi baten billa dabilizan endetako Elizbarrutiei. Beti bezala, gutxi gera, baina elkarturik indar aundia sortuko litzake, bazter auetan.

Elizbarrutiak ugari tu

Euskalerrriari buruz gauza bat garbi agertzen zaigu: Ebzbarruti gutxi dauzkagula, gotzaiak ere ez naikoak.

Gure belarria, beste lurraldétara urbildu ezker, an.gertatzen dana jakingo genuke. Beti gogoan auxe euki: Euskalerrrian bost Elizbarruti dauzkagula eta sei gotzai, besterik ez. Elizbarruti oiek ez dira naikoak Euskalerrri osoarentzat eta gutxiago oraindik sei gotzai bi milloi terdi biztanlentsat. Ikus beste lurraldetan gertatzen dana. Europan bertan Italiak, 55 milloi biztanlentsat 369 gotzai dauka. Irlandak lau milloi terdientzat 30 gotzai. Lurraide oietan naiko EHzbarruti, naiko gotzaiak eta EHzak gaur eguneko ekaitzari ondo eusten dio. ItaHa-n euki dituzten buruaustekin, EHzak ba du giarra. Garai berdinean, ikus bestelako jokabidea Holanda-n: bost milloi terdi katoHkoentzat zazpi gotzai bakarrik. Lurraide ortan arkitu diran ekaitzetan EHza dantzan; arts ai gutxiegi izaki. Orain goazen beste lurraldetara: Asian, **Libano** dugu, Naparroa bezin zabala, milloi terdi katoHko eta ogei gotzai. Ar dezagun orain, Puerto Rico, Ameriketara; Naparroa baino txikiagoa da. Bi milloi terdi katoliko ditu eta amar gotzai. Gotzai naiko dauden tokietan auxe ageri: artzaia beti artaldearekin. Artzaia artaldearekin dagonean, Eliza indarbenitzen da. Artzaiak urritzen diranean, EHza erdi zutik, artaldea eratua eta ezin bildurik.

Gai oneri buruz, Batikano-ko Batzar nagusia mintzatu da, "Christus Dominus" delako idazkian. Garbi asko auxe esaten du: bear danean Elizbarrutiak ugaritu bear diraia. Noiz ugaritu? Gotzaiak apaizak banaka ezin dituztenean ezagutu eta agurtu, ebzetan lasai ezin dutenean sendotza banani, kristau soillak bear bezala artu ezin dituztenean eta abar. Götz ai bat ez da gobernadore bat, gutxiago oraindik gu darri tillen lendakaria. EMzbarrutia zabalegia danean, gotzaia bakarrik adiskideak ezagutzen dute eta gotzaia ez da adiskideen adiskidentzat egina. EUzbarruti gutxi daudenean, gotzaia urrutiegi bizi da eta ez artaldearekin.

Ikus gertatzen zaiguna. Bilbo-ko gotzaia, Bizkai osorako dugu. Gizon bat 1.200.000 biztanlentsat, geiegi da. Gainera sendotza ematera joan bear du, erriz erri, eliz batetik bestera. Ba du gotzai laguntzaillea. Bainan bertako gotzaiak noizko eliz danak ikusi eta artaldea agurtu? Bizkaiak gutxinaz, ini Eüzbarruti berriak bear btuzke: Durango, Lekeitio eta Balmaseda.

Gipuzkoak berriz, gotzai bat bakarrik dauka. Gizon bat 800.000 biztanlentsat. Ori ere geiegi da. Beste bi Elizbarruti geiago bear genituzke: Tolosa eta Bergara. Arabak berriz, gotzai bat dauka eta lurralde zabalak ditu: Elizbarruti berria bear luke Biaisteri irian, egoaldea. Naparroa, oso z ab ala da Puerto Rico eta Libano baino aundiago dugu, Elizbarruti bakarra dugu. Beste bi geiago eraiki bear brake: bat, Muskarian (Tudela), bestea Lizarra-n (EsteUa). Baiona-ko Ehzbarrutia berriz zabalagia da, Biarno-raino sartzen zaie. Bi Elizbarruti bear genituzka: bat, Baionan Euskalerriarentzat eta bestea Pauen Biarnontzat.

Euskalerriko Sinodoaren eginkizuna auxe da: gai au ondo aztertu eta Elizbarruti geiago eskatu. Elizbamiti geiagokin eta euskal gotzaiak ugarituaz, Eliza osoan argindar geiago eukiko luke Euskalerriak eta itzal ori, Elizaren goi maulan

eukitzeko, bearrezko baldintza oien jabe bear ginazke izan. Euskalerrri osoan artzai geiago bear genituzke eta orrela goi **maulan** gure itz ala zabalagoa izango litzake.

Euskal **Gotzaiak**

Arritzekoa da, gaur egun, oraindik, Batikano-ko Batzar nagusiaren ondotik, euskal gotzaiak eskatu bearra izatea Euskalerrrian. Gai oneri buruz, Sinoduaren itzak indar aundia eukiko luke Erroma-ren aurrean.

Bertatik bertara, ikus dezagun zer gertatu zaigun eta zer gertatzen dan Euskalerrrian. Aspalditik asita gotzai asko euki ditugu euskaldunak etziranak eta euskaraz etzekitenak. Giro ortan, gure sinismena aitortzen dun otoitz an noia deitu Katoliku gure Eüza? Elizbanrutitik Elizbarrutira, ikus dezagun gertatu takoa:

IRUNA (Amasei garree gizalditik asten gera zenbatzen)

Amasei garren gizaldian 14 gotzai euki zituzten. Oietik bat bakarrik etzan euskalduna..

Amazazpi garren gizaldian, 15 gotzai dituzte. Oietatik euskaldunik ez.

Emezortzi garren gizaldian, 10 gotzai zenbatzen ditugu. Oietatik 4 euskaldun.

Emeretzi garren gizaldian, 6 gotzai arkitzen ditugu. Oietatik **bi** euskaldun.

Ogei garren gizaldian, **zazpi** gotzai eta oietatik 3 euskaldun.

GAZTEIZ (1861 garren urtean eraikia).

Emeretzi garren gizaldian 4 gotzai arkitzen ditugu. Bat **bakarrik** euskalduna.

Ogeigarren gizaldian, 10 gotzai eta oietatik ira euskaldun. Iru euskalkiak Gazteiz-ko Elizbarrutiakin batuak daudela, 7 gotzai euki zituzten eta bi bakarrik euskaldunak, bat Mateo Mugika (1928-1937), bestea berriz Lauzirika (1937-1943) era bat gizon-kaskarroa.

BILBAO (1949 garren urtean eraikia).

Bost gotzai euki dituzte, oietatik 4 euskaldun, Casimiro Morsilo ezik (1950-1955).

DONOSTIA (1949 garren urtean eraikia).

Lau gotzai euki ditugu, oietatik 3 euskaldunak, bat ezik, Jaime Font Andreu (1951-1963).

BAIONA (16 garren gizalдитik asita, Ierro osoa idazten dugu).

Bertrand d'Echaz	1598-1618
Claude de Reueil	1621-1628
Raymond de Montaigne	1629-1637
Francois Fouquet	1639-1643 .
Jean d'Olee	1643-1681 Arisen gotzaia euskalduna
François de Beauvau	1701-1707
DnâHet	1707-1727
Delà Vieuvilie	1728-1734
Gigault de Beilefont	1735-1741
Beaumont du Repaire	1741-1745
' Guillaume d' Arche	1745-1774
Ferran de la Ferronays	1775-1783
Pavee de Vileville	1783-1793
Joseph Jacques Loison	1802-1820 (Verdun-koa)
Paul Theresa David d'Astros	1820-1830 (Pau-koa)
D'Arhou	1830-1837 (Toulous-koa)
Lacroix	1837-1878 (Aveyrom-koa)
DuceUier	1878-1887 (Calvadqs-koa)
Fleury-Hottot	1887-1890 (Digme-koa)
•Jauffret	1890-1902 (Marseilla-koa)
Gieure	1906-1934 (Landes-koa)

Houbaut	1934-1939 (Nancy-koa)
Vansteenbergh	1939-1943 (Nord-koa)
Terrier	1944-1957 (Haute-Savoie-koa)
Gouyon	1957-1963 (Bordele-koa)
Vincent	1963- (St Etienne-koa)

Baiona-n, azkeneko iru gizaldietan, ez dugu euskal gotzai bat bakarrik. Gaur oraindik, Batikano-ko Balzar nagusiaren ondotik ez dugu gotzai euskaldunik. Baiona-ko Eliza kolonizatua daukagu.

Berri auetatik, gauza bat garbirik azaltzen zaigu: Erroma-ko diplomazia saldu eta erosten dala.

Len gertatutakoa, EHzbarruti askotan, emendik gutxira gertatu btzaiguke. Orregatik oso erne eta argi ibilli bearra dugu.

Baiona-n bertan kristau batzordeak sortu bear lirake gotzai euskaldunak, Erroma-ra aspertu gabe eskatzeko, ori lortu arte.

Gainera, len esan dugun bezala euskaldun gotzai geiago bear genituzke. Gotzai gutxikin gona motza gelditzen zaio Elizari.

Elizbarrutiko leyatilletan ere apaiz euskaldunak bear genituzke arkitu. Ezin dugu ontzaz artu len gertatu takoa: etzekiten euskaraz itz bat eta mina ematen zuen orrek. Elizak ezin du jolas tu Euskalerrian, euskararekin. Geiegi utzia eta aztua zeukan, gutxinaz goi mailletan.

Kristau eta apaiza euskaldunak alkartu

Euskalerri osorako eratutako Sinoduak bakarrik elkar ditzazke kristau soillak eta apaizak. Sinodua bildu aurretik batz orde berexiak antolatzen dira eta bullera oietara Euskalerri osoko gizasemeak etorriko brake, bakoitzak bere doaiak eta urteen emaitza eskuratuaz. Gaiak aukeratuko btuzkete, baita amaika asmo berri. Euskalerri osoko kezkak eta itxaro-
penak bizirik egongo brake. Joan-etorri ibilli oiekin argi bizia zabalduko Htzake Euskalerri osoan.

Bainan gogoan euki bearra auxe da: Sinoduaren ondotik ortxen geldituko Htake oraindik batzorde berexiak, erabaki batzuek aurrera eramate arren. Orrela, bein eta berriz, maiz bilduko brake Euskalerri osoko kristau soillak eta apaizak. Bide ortatik, pixkanaka gero eta geiago eukiko genuke Eliz bat Euskalerria serbitzeko, orrexek dauzkan ondorengo guztiekin.

Euskalerri osorako Sinoduaren emaitzarik bibainena auxe izango btzake: elburu berdina bazter guzti tan sortzea. Ara emen jokaera orren oi u nagusia: zer egin Euskalerriaren aide euskaldun eta kristau bezala? Sinismenaren elburua ez Utzake zintzfflik zeruan geldituko, enarri jatorrak ementxen Euskalerrian aurkituko btuzkete. Ekintza orren naia, gogoa eta deia, Euskalerri osoan zabaltzea, gutxi al litzake?

Gainera, euskaldunak ikusi bear lukete noia lortu eskubide berdinak Euskalerriko Ebzbarrutietan. Kristau-ikasbidea dala, edo sakramentu ak edo ' kristau elkartek sortzeko arazoa, baita apaizentzat aitortza, ezkontza, itzaldiak eta mezak ematea eskubide osoakin Euskalerri z ab alean. Ezin dana geiago ontzaz artu, Elizbarruti bakoitzak bere erabakiak artzea auzokoei eskurik eman gabe edo kristauei eragozpenak bakarrik jartzeko. Buruausteak berdindu bear dira, baita errestasun berezkoak eman.

Beste gaia, Elizbarruti bakoitzak bere aldetik ezin duna erabilli: arrotzerriko euskaldunen elizartzantza. Len aipatu dugu naikoa geriakizun mingarri au: millaka euskaldunak atzerrian eta Euskalerriko Elizak pixar batzuek eskeintzen edo gainerakoan arpa jotzen. Atzerrian dauden euskal kristau ak eta apaizak, Euskalerriko EHz aren laguntzarik gabe bizi dira. Ba al dago eskubiderik ortarako? Nere ustez, euskal Diasporako anaiak ere Euskalerriko Sinodura deituak bear brake: urruti an dituzten kezkak azaltze arren. Euskal Diasporak ba du mina eta sua, baita Sinoduan itz egiteko eskubide osoa.

Atal buru ontan agertzen ditu gun gai auek ez dira aipatuak eta erabakiak izango Euskalerri osorako Sinodurik gabe. Elburu guzti oiek ez ditugu eskuratuko eta elbarriak bezala geldituko gera.

Euskalerriko Sinodua lan aundi dala danontzat ageri eta jakina, bainan norbaitek betebearara eta len bait len egitea obe. Orduan eta obeto emango dizkigu erantzun jatorrak gaurko euskaldunei. Sinodurik gabe, Eliza, Euskalerrian, beti ipurtargi geldituko zaigu.

AMA Y A

Naiz gure lan osoaren orritan, Sinodua asko goretsi, Euskalerriko Elizak ez dio begiramen aundirik agertu; mutil gazteak neskazarrari eskeintzen dion ardura berdina. Urteak etorri eta urteak joan Sinoduak illunpe gaitzan daude aztuak. Orrexegatik, utsune aundia daukagu nere ustez Euskalerriko Eliz an. Entzun, arren berri latzak.

Sinoduak Euskalerrian

Egin direnak banaka, errenkan jarriko ditugu. Urtea agertuko dugu, baita bildu zuen gotzaiaren izena eta argitaratu zuen hburuaren urtea.

Irunako Elizbarrutian

1216,1218	Guillermo Santonge
1301	Miguel Perez
1313,1315	Arnalt de Puyano
1325, 1330, 1341, 1346, 1349, 1354	Arnaldo de Barbazan.

1357 Miguel Sánchez
 1383 Bernalt de Foucault
 1388 Martin de Zalba
 1409 Lanceloto de Navarra
 1421 Sancho S.Oteiza
 1458 Cardenal Besarion
 1466 Nicolas de Echevarri
 1477 Alfonso Carrillo
 1499 Antoniotto Pallavicini, Iruna-n arg. Garran
 tzi aundia du.
 1524,1528,1531 Cardenal Cesarmi, Lyon arg. 1532
 1544 Pedro Pacheco, Iruna-n arg. 1544
 1548 Antonio Fonseca
 1551 Alvaro de Moscón
 1556 Diego Ramirez Sedeño
 1577 Antonio Manrique
 1586 Pedro de la Fuente
 1590 Bernardo Rojas y Sandoval, Iruna-n arg
 1591.
 1634 Pedro Fernandez Zorrila
 1815 Veremundo Arias
 1958 Enrique Delgado, Iruna-n arg. 1958

Amalaugarren gizaldian, 12 Sinodu bildu ziran
 Amabost garren gizaldian 6 Sinodu arkitzen ditugu.
 Amasei garren gizaldian 10 Sinodu.
 Amazazpi garren gizaldian BAT.
 Emezortzi garren gizaldian bat ere ez.
 Emeretzi garren gizaldian BAT.
 Ogeo garren gizaldian BAT.

Gazteizko Elizbarrutian

1885 Mariano Miguel Gomez, Gazteiz-en arg.
 1885; 502 apaiz bildu ziran.
 Eun eta amabi urtetan, Sinodu Bat bakarrik.
 Amalau gotzai izan dituzte eta Sinodo bakarra.

Bilbo-ko Elizbarrutian

Ogei ta amairu urte dauzka eraiki ezkerotik eta lau gotzai
 euki dituzte. Ez dute oraindik Sinodorik bildu.

Donosti-ko Elizbarrutia

Ogei ta amairu urte ditu Elizbarruti onek eta lau gotzai
 izan dira. Oraindik ez da Sinodorik egin.

Baiona-ko Elizbarrutia

Ezagutzen ditu gun Sinodoak auexek dira:

1533 Etienne Ponchier
 1666 d'Olce
 1749 d'Arche
 1829 Paul d'Astres
 1898 Francois Antoine Jauffret
 1921 Francois Xavier Gieure
 1949 Leon Albert Terrier

(Oso garrantzi aundiko erabakiak artu zi-
 ran batzar ontan).

Euskalerriko Sinodua

Ez da oraindik egin.

Ara ba Euskalerriko berri mingarriak.

Ezin dugu aztu Sinoduari buruz zer dion EHzaren legeak (D.C. 356-368). EHzbarrutiko Sinodua amar urtez biltzeko esaten du eta EHzbarruti nagusietan ogei urtez gutxienez. Ortzen ikusten dugu zer balio du an Euskalerrian, EHzaren legeak.

Gaiñz txarren bat ba dago Euskalerriko EHzan gauzak ain gaizki dijoaztenean.

Zuntoyaren ezpalak

Etxe baten onarriak zulatzeko, lendabizi lurra sakon kendu bear da eta ortarako zunttoi zorrotza ondo dator. Aurreneko lana, zuntoyaren ezpalekin asten da. Emen ere gauza lana onen bukaeran Sinodua gaia daukagula, zuntoyaren ezpalak aipatu nai genituzke.

EHzbarruti edo Euskalerriko Sinodua, gotzaiak eraikitzen dute eta ortarako bear diran legeak ere gotzaiak sortzen dituzte. Sinoduaren buru gotzaia da, bainan lana ez du bakarrik egiten, kristau eta apaizekin batean baizik. Gai zorrotzak sortzen direla erantzun jatorra eman bearko die, Berri Onari zuzen begiratuaz.

Dana dala, kristau soil eta apaizentzat, Sinodua aukera egokia da, Elizaren bizia Berri Onaren giroan berritzeko.

Ortarako arazoak sortuko dituzte eta erantzunak eskatuko. EHza, zutik eukitzen aleginduko dira eta gainera Eliza bat sinisdun erri osoak artzaiarekin osatua, eta ez bakarrik adiskideen adiskideak gonatartean etxeko baratza izango ba-Htz bezala, eskutartean itxia daukatena.

Bi elburu egokiak ditu Sinoduak Elizarekin lotzen dutenak; bat Sinodua EHzaren batasuna lortzeko gauzik egokiena dugula eta bestea Sinoduaren bitartez, Berri Ona bereziki eratzen dala euskaldun biotzetan. Orregatik esango genuke gogotik, Sinodorik gabe ez dugula egiz, Elizaren aurrerapenik.

Orregatik, EHzaren etorkizuna Sinoduarekin era bat lotua ikusten dugu. Gaurko Sinodua, biyarko Elizaren azia eta landarea dugu Euskalerrian.

Nere aldetik berriz, auxa esango nuke gogotik: Euskalerriko EHzaren etorkizuna bi abe nagusietan eraikia ikusten dugula: Elizbarruti txikiak (gaur ditugunak baino egokia-koak) eta Sinoduak ugari.

Askok eta askok, eragozpen berdina jarriko diote Sinoduari: "eta ñola asi?". "Ez ote da zaillegia?", esango dute.

Asteko, baizorde txikiak sortu bearko lirake. Batzorde oietan su gommina sortuko da, baita ere itzaliko eta Sinodua biltzeko garaia datorrenerako lana oso eldua eta aurreratua izango da. Batzorde oietan, jaioko da emaitzaren azia eta Elizaren eraberritzea.

Dana dala, Sinoduaren emaitza txikiak ez dugu izango ontzaz artutako idazkiak euskaraz eginak eukitzea: Teologizko arazoak, legezko erabakiak, edestiaren aztamak, soziologiko azterketak, lanerako paperak eta abar. ORI ABERASTASUNA!

Euskalerriko Elizari begiraten diogula, azkeneko urte auetako ekintza bikanena, auskarazko Mturgia izan da, zalantzarik gabe. Biarko Eüzarentzat, berririk egokiena, bat bearko luke: EUSKALERRIKO SINODUA.

LIBURUEN ARGIBIDEA

Sinodua delako gaiarí buruz

Argitaratutako urtei begiratzuz ipintzen ditut.

Benedicto XIV, *De Synodo Diocesano*, Roma 1748.

Benedicto XV, *Codex Juris Canonici*, Roma 1918, Cañones 356-368.

F.G.Savagnone, *Le Origini del Sinodo Diocesano*, Studi Brugi 1910.

Chris tus Dominus, Concilio Vaticano II, 1965, n-36.

Directory for the Pastoral Ministry of Bishops, Ottawa 1974, pp. 82-84.

J.A.Coriden, *The Diocesan Synod: An instrument of Renewal for the Local Church*, Jurist 34, 1974, pp. 63-93.

FJB.Donnelly, *The New Diocesan Synod*, Jurist 34, 1974, pp.396-402.

Diccionario de Historia Eclesiástica de España, CSIC, Madrid 1975. *Sínodo*, T. IV, pp. 2487-2494.

New Cathohc Encyclopedia, CathoHc University of America Washington 1979, *SYNODS, DIOCESAN*, Vol. XVII, p. 631.

J.M.de Lachaga, *L 'Eglise Particulière et Minorités Ethniques*, Centurion, Paris 1978, pp. 248-255.

J.M.de Lachaga, *L 'Exemple de la Liturgie en Basque*, Centurion, Paris 1979.

J.M.de Lachaga, *Iglesias Particulares y grupos Étnicos*, Desclée de Brouwer, Bilbao 1981, pp. 127-134.

Ezin ditugunak aipata

Sinoduari buruz ez dute ezeríxore esaten.

- Dictionnaire de Théologie Cathoïc, Paris.
- Catholicisme, Paris.
- Theological Dictionary, Washington.

Liburu onen gaiari buruz nere lanak:

- Latzaga, *Eliza ta Euskal Kultura*, Z.A. 1970, 12-13
- " *Eliza ta Euskal Kultura*, Z.A. 1971, 1-17
- " *Eliza Berri baten Billa, Gaitzen Osakia, SINODUA*, Z.A. 1971,1-24.
- " *Euskal Pastoralaren Batasuna*, Z.A. 1971, 3-14.
- " *Euskal Pastoralaren Batasuna Ta Jaunaren Deia*, J.D. 1971, VI.
- " *Parrokietako Egin Bearrak*, Agur 1971, 2-29.
- Diaspora ta Eliza*, Agur 1972,12-20
- " *Eliza Subdesarrollatua Ote?* G.A. 1973, 3-15.
- " *Apaizak Pastoralari Buruz Eratuak*, G.A. 1973, 3-31.
- " *Herri Gaztediaren Zomorkeria ta Azpilana Agertu Bearrean*, G.A. 1972, III.
- " *Euskal Gaztei Eskutitza*, G.A. 1972, III.
- " *Gipuzkoako Apaizei*, G.A. 1972, III.
- " *Aste Santuko Akelarreak Euskalerrian*, G.A. 1973, IV-15.
- " *Erri txikien Aurrerapena ta Eliza*, G.A. 1973, IV-15.
- Euskara Parrokietan*, G.A. 1973, IV-15.

Etorkizun berri baten azia

- Boletín Oficial Obispado de San Sebastián, *Reunión de los Obispos y Vicarios Generales de Pamplona y Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria*. Enero 1979.
- Boletín Oficial Obispado de San Sebastián, *Secretariado de Pastoral interdiocesana*, Junio 1979.
- Boletín Oficial del Obispado de San Sebastián, 1930-81 *Ikasurteko Pastoral ari nagusiak*, Zestoa 27-29 gara. 1980, agosto 1980.
- Boletín Oficial Obispado de San Sebastián, *Comunicado final II encuentro de Cestona*, agosto 1981.
- Boletín Oficial Obispado de San Sebastián, *Zestoako III Pastoral Batzarra*, agosto 1982.
- Carta Pastoral de los Obispos de Pamplona y Tudela, Bilbao, Vitoria y San Sebastián, *Diálogo con los jóvenes desde la fe*, Cuaresma 1982.
- Carta Pastoral de los Obispos de Pamplona y Tudela, Bilbao, Vitoria y San Sebastián, *La Iglesia Comunidad Evangelizadora*, Cuaresma 1983.
- Elizbarrutietako Liturgi Idazkaritzak, *Asíe Santua eta Pazko-Aldia*, Lazkao 1983.

Esaldi nagusien laburpena

ELIZA ELKARTEA DA: EZ DUTE TALDEAK SORTZEN.
 ELIZA EMPRESA KAXKAR BAT BEZALA ERABILLIA.
 ADISKIDEEN ADISKIDEAK AGINTZEN DUTE MAIZ.
 EUSKALDUNAK IXILIK IRAUTEN DAKI.
 ELIZAN, LO, ERDI LO, LO ZORROAN ASKOTAN.
 TALENTUEN IDURIA, AIPATUA TA ESKUTIK UTZIA.
 OGIA ZAT1TZEN DAKINAK, LANA BANATU BEAR DU.
 BEGI BELTZAK BETI ARDI XURIAREN ZAI.
 BESTEEN ASMOAK TXORIAREN ATSA.
 ELBARRIAK LANTOKIETAN ETÀ GAZTE INDARTSUAK LANIK GABE.
 DANEN BESORIK GABE, EZ DAGO ETORKIZUNIK E LI ZAR ENTZAT.
 BESOAK ZABALDUAZ SORTZEN DA BATASUNA.
 LANIK ZALLENA NOLA EROAK BARETU.
 ERRIA EZ DA BEREZ ELIZA.
 ELIZAREN EDERGALLUEKIN IJITUAK GIZENTZEN.
 ELIZ ASKOTAN GAITZAK JOTA DAUDE.
 EUSKALDUNAK EUSKALERRIKO ELIZETAN ASKOTAN ARROTZ.
 ELIZAREN ITZALEAN IKASTOLA.
 EZIKETA EZ DA ZIKINKERIA TA NASKETA.
 DANA JAKIN BAI TA ZOZOEN ANTZERA SASITARTEAN IXILIK.
 ELIZEN GELETAN AKELARRE GORDINAK.
 ITZ UTSEN INGURUAN EZ ASTIRIK GALDU.
 NUNBAIT APAIZGAITEGIAK ONDARTZAN ONARRITU ZITUZTEN.
 ZÉRTARAKO AINBESTE ORRU TA ARROKERI.
 APOAREN ANTZERA GELDI EGOTEA TXARRA.
 LEKAIMEEN DEIA EZ DA EPERRAREN TXISTUA.
 EZ DAGO ARTZAIK GABEKO ARTALDERIK.
 EUSKAL DIASPORA DALA TA; ARTZAIA EMEN TA ARTALDEA AN.
 GOTZAIA GALLURREAN ETA ERRIA MARRAKA.
 GOTZAIA GUTXIKIN GONA MOTZA GELDITZEN ZAIO ELIZAR!.
 ALDE BAT ENTZUN, BAITA BESTEA TA GOGOGURENAK ESANA EGIN.

Aurkibidea

Itzaurrea	H
I.Sinoduaren zerikusia	13
II.Sinoduak edestian	19
III.Sinoduaren bearra Euskalerriko Elizbarrutietan	23
IV.Korapillo nagusien azterketa	51
V.Euskalerriko Sinodua	89
Amaya.....	99
Liburuen argibidea	105
Esaldi nagusien laburpena	108